RF1 hiru fitxategitan banatzen da, hau da, fitxategiak kontzeptuetan, deskribapenetan eta erlaziotan sailkatzen dira. RF2-n, aldiz, fitxategi kopurua handitzen da (Erlazioak, Kontzeptuak, Deskribapenak, Crossmapak , ...) edukia mugatuagoa izanez.

SNOMED CT-k bi erro kontzeptu ditu. Lehenengoan metadatuak egituratzeko erabilitako erroa da: *Root Metadata Code*. Azken honetan, SNOMED CT beraren informazioa egituratzen da, *Fully Specified Name, Preferred, Acceptable, Current...* moduko elementuen bitartez.

Bigarren erroa, edukia antolatzeko erabiltzen da: *Root Concept Code*. Honen barruan 19 goi mailako hierarkia definitu dira (*Top Level Hierarchies*). Hierarkia hauetan kontzeptu guztiak barne bildurik daude, bakoitza dagokion hierarkian antolatuta. Kontzeptuen arteko ume-guraso loturak gauzatzeko, *is a* motako erlazioak erabiltzen dira. Ikusi 4.2 irudiko SNOMED CT-ko 19 hierarkiak.

- ▼ ● SNOMED CT Concept
  - ▶ ● Body structure (body structure)
  - ▶ ● Clinical finding (finding)
  - ▶ ● Environment or geographical location (environment / location)
  - ▶ ● Event (event)
  - ▶ ● Observable entity (observable entity)
  - ▶ ● Organism (organism)
  - ▶ ● Pharmaceutical / biologic product (product)
  - ▶ ● Physical force (physical force)
  - ▶ ● Physical object (physical object)
  - ▶ ● Procedure (procedure)
  - ▶ ● Qualifier value (qualifier value)
  - ▶ ● Record artifact (record artifact)
  - ▶ ● Situation with explicit context (situation)
  - ▶ ● SNOMED CT Model Component (metadata)
  - ▶ ● Social context (social concept)
  - ▶ ● Special concept (special concept)
  - ▶ ● Specimen (specimen)
  - ▶ ● Staging and scales (staging scale)
  - ▶ ● Substance (substance)

*Irudia 4. 2: SNOMED-CT-ren 19 hierarkiak.*

- ▼ ● Substance (substance)
  - ▼ ● Allergen class (substance)
    - ▼ ● Allergen or pseudoallergen (substance)
      - ▼ ● Drug allergen or pseudoallergen (substance)
        - ▼ ● Drug allergen (substance)
          - ▶ ● 3-Hydroxy-3-methylglutaryl-coenzyme A reductase inhibitor (substance)

*Irudia 4. 3: 3-Hydroxy-3-methylglutaryl...-en arbasoak.*

4.3 irudian substance kontzeptuaren gurasoa eta arbasoak ikus ditzakegu hierarkiaren bitartez deskribatuta. Gure kasuan sinonimoak euskaratzea beharrezko izango da GAP lan hau aurrera eraman ahal izateko.

Beraz, esan dezakegu kontzeptu bakoitzak *is a* erlazio bat izango duela beti. Hona hemen *Apoptosis* kontzeptuaren erlazioa (3.2 testu-kutxa):

Apoptosis (morphologic abnormality)			
Type	Description	Group	CharType
Is a (attribute)	Body structure, altered from its original anatomical structure (morphologic abnormality)	0	Inferred

Testu-kutxa 4. 2: : “Apoptosis” kontzeptuaren erlazioa (beste kasu batzuetan bat baino gehiago egon daitezke).

3.2 testu-kutxan ikus dezakegu nola *Apoptosis* terminoak erlazio bakarra duen eta erlazio mota hori *is a* den. Hau da, *Apoptosis*-en gurasoa beste kontzeptu batekin lotuko du *Body structure, altered from its original anatomical structure (morphological abnormality)* izango dena. Beraz:



Irudia 4. 4: Erlazioak.

SNOMED CT-n bestelako erlazioak ere badaude, hala nola, *causative agent, location, etab.*

Esan beharra dago honek CORENLP (4.3.1 azpiatala) ingeleseko analizatzaile linguistikoak SNOMED CT erabiltzen duela ingelesez dauden terminoen analisia egiteko.

## 4.3 Analizatzaile linguistikoak

Bi analizatzaile linguistiko erabili ditugu produktuan (CoreNLP ingeleseko terminoentzako eta Eustagger-lite euskarazko

terminoentzako). Biek testu hutsa jaso eta testu horren analisi linguistikoa bueltatuko dute.

### 4.3.1 CORENLP

#### Zer da?

Hizkuntza-analisia egiteko baliabideak eskaintzen ditu. Erakundeen izenak edo populazioa identifikatu, esaldien zati egokitan banatu, datak eta orduak normalizatu, POS-ak (*Part Of Speech*, kategoria gramatikala euskaraz) identifikatu, adierazi zein entitateari erreferentzia egiten dion izen-esaldi bakoitzak, klase-erlazioak lortu bi aipamen artean, etab. lortuko ditugu analizatzaile honen bidez.

Beraz, oso erabilgarria egingo zaigu *Stanford CoreNLP* izeneko analizatzaile multzoa testu analisi sakona egiteko. Analisisirako hurrengo hauek erabiliko ditugu:

- Lema
- Izen-entitateak
- Mendekotasun sintaktikoak
- POS (*Part Of Speech*)

*Stanford CoreNLP* Javaz idatzita dago (Java 1.8 zehazki) eta Linux, OS X eta Windows-en erabil daiteke.

#### 4.3.1.1 *Stanford CoreNLP* interfazea Python-entzako

`Med_en` eta `Med_eu` sistemak Python programazio-lengoaian inplementatuta daude (4.5 azpiatala). Hau dela eta, analizatzaile linguistikoak Python erabiliz lantzeko aukera izatea oso garrantzitsua da proiektu honentzako.

Python-entzako *wrapper*-a<sup>2</sup> da non Java-tik Python-era konbertsioa egiten duen (*Stanford CoreNLP – a suite of core NLP tolos, n.p*). Hau da, aurretik

---

<sup>2</sup> Programa bat, non programaren portaera moldatzen den honen funtzionamendua aldatu gabe.



esan dugun moduan *CoreNLP* Java-z idatzita dago eta *wrapper* honen bidez lortuko dugu zerbitzari honen kodea Python-ez bistaratzea.

### 4.3.2 *Eustagger-lite*

#### Zer da?

Euskararako etiketzaile/lematizatailea da non bere helburua hitz-forma bakoitzeko (bere testuingurua kontuan hartuta) dagokion lema eta hizkuntz etiketak ematea den (Ornoz, 2008). Analizatailea bi mailatan oinarrituta dago eta diseinatua izan da hiru modularekin: analizataile estandarra, aldaera linguistikoan analizatailea eta lemarik gabeko analisia.

Lema, POS (*Part Of Speech* edo kategoria gramatikala euskaraz) eta beste informazio morfoloikoa lortzeko gai da. Gainera, data, orduak eta zenbaki espresioak antzeman ditzake.

*Eustagger-lite* C-z idatzita dago eta web-zerbitzua eskaintzen du.

#### Anbiguotasuna


CG (*Constraint Grammar*) liburutegiko murriztapen erregelak erabiltzen ditu kategoria mailako anbiguotasuna txikitzeko.

Morfeus (IXA taldeak garatutako analizataile morfoloikoa) erraminta erabilia hitz-forma bati dagozkion analisi morfosintaktiko posible guztiak ematen ditu. *Eustagger-lite*-k aldiz, testuinguruko informazioa begiratzuz onartezinak diren interpretazioak baztertzen ditu. Honela, *Eustagger-lite*-k interpretazio bakarra eta egokia lortzen saiatuko da.

Hiru anbiguotasun morfosintaktiko mota aurki daitezke:

- *Kategoria*: izen/aditz, aditz/adjektibo/adberbio... modukoak non hitzak 2, 3 edo 4 interpretazio posible eduki ditzaketen. Bi teknika ezberdin konbinatzen ditu *Eustagger-lite*-k (hizkuntzan oinarrituan eta estatistikoetan) (ikusi 4.5 irudia).
- *Morfema ez-askeak*.

- *Sintaxia*: hitz bat subjektu edo objektu izan daitekeen.



*Irudia 4. 5: Eustagger-lite-ren arkitektura.*

Bukatzeko, estokastiko teknikak erabiliz etiketa bakarra aukera dezake (bat baino gehiago egon arren). Hau soilik erabilia, errore ratioa (hots, anbiguotasuna) %15-koa da, eta honi teknika linguistikoak gehitzen badizkiegu, errore ratioa %4,5-koa izango da.

#### 4.3.2.1 NAF formatua

Eustagger-lite-k emaitza hainbat formatuetan buelta dezake. Gure kasuan NAF formatuan izango da (Wordpress.let.vupr.nl., 2016). Hau, NLP (*Natural Language Processing*, informatika, adimen artifizial eta hizkuntzalaritzaren alorra) *pipeline* konplexuentzako diseinatuta izan da NLP diren arkitekturak erraz erabiltzeko. Hurrengo itxura hartuko du emaitza (4.3 testu-kutxa):

```

<?xml version='1.0' encoding='UTF-8'?>
<NAF xml:lang="eu" version="2.0">
<nafHeader>
  <linguisticProcessors layer="text">
    <lp name="EHU-eustagger" version="1.0.0"
beginTimestamp="2016-05-10T12:46:56+0200"
endTimestamp="2016-05-10T12:46:56+0200"/>
  </linguisticProcessors>
  <linguisticProcessors layer="terms">
    <lp name="EHU-eustagger" version="1.0.0"
beginTimestamp="2016-05-10T12:46:56+0200"
endTimestamp="2016-05-10T12:46:56+0200"/>
  </linguisticProcessors>
</nafHeader>
<text>
  <wf id="w1" offset="0" length="7" sent="1" para="1">Down-
en</wf>
  <wf id="w2" offset="8" length="9" sent="1"
para="1">sindromea</wf>
</text>
<terms>
  <!-- Down-en -->
  <term id="t1" lemma="down" morphofeat="NC000000" pos="N"
case="IZE ARR GEN NUMP MUGM ZERO HAS_MAI @&lt;IZLG
@IZLG&gt;">
    <span>
      <target id="w1"/>
    </span>
  </term>
  <!-- sindromea -->
  <term id="t2" lemma="sindrome" morphofeat="NC000000"
pos="N" case="IZE ARR BIZ- ABS NUMS MUGM @OBJ @PRED @SUBJ">
    <span>
      <target id="w2"/>
    </span>
  </term>
</terms>
</NAF>

```

Testu-kutxa 4. 3: "Down-en sindromea" terminoa NAF formatuan.

Beraz, eustagger\_lite eta NAF formatuaren bitartez hitz formaren informazio linguistikoa guztia lortuko dugu modu ulergarri eta erraz batean. Har dezagun , "Down-en sindromea" terminoa eta ikus dezagun zein informazio topa dezakegun NAF formatuan (4.3 testu-kutxa):

#### Eskainitako informazioa:

- Lemak: lemma="Down" eta lemma="sindrome"
- Anali linguistikoa (case etiketa):
  - o Hitzen arteko dependentziak: "@&lt;IZLG @IZLG&gt;" hizkiak -en atzikia adierazten dute. Kasu honetan 'Down-en'

- tokena 'sindromea' tokenaren izen laguna izen daitekeela( @ > IZLG) adierazten da (desanbiguatu gabe dago @IZLG > ere badugulako).
  - Kategoria (KAT) eta azpikategoria (AZP) nagusiak: IZE ARR (izen arrunta).
  - Kasu-markak (KAS): ABS (Absolutiboa).
  - Numeroa (NUM): NUMS (Numero singularra).
  - ...
- Hitzaren luzera: `offset="0" length="7"` eta `offset="8" length="9"`.
- POS (*Part Of Speech*): `pos="N"` eta `pos="N"` (biak izenak, *noun*).

## 4.4 Med\_en sistema

Sistema honetan oinarrituko gara `Med_en` euskarako bertsioa eraikitzeko. Sistema hau ingeleseko terminoetarako soilik baliagarria denez ez ditu euskararen terminoak egoki tratatuko (sintaxi ezberdina, morfologia, ...). Dena den, hurrengo orrietan erakutsiko dugu nola euskararako bertsioa sortzea dagoen (eta honekin batera, beste edozein hizkuntzarako) `Med_en` sistemaren kodea eskura izanez. `Med_en` sistemak *Stanford* analizatzailea erabiltzen du.

`Med_en` sistemak bi osagai nagusi ditu: `TermMed_en` eta `AnaMed_en`. Jarraian azalduko ditugu:

### 4.4.1 *termMed\_en*

Zerbitzari honetan kontzeptuak, deskribapenak, erlazioak, hizkuntza eta hierarkiak jasoko ditu (kargatu). Zerbitzari hau martxan jarri ahal izateko *CoreNLP (Stanford)* zerbitzaria martxan eduki behar izango dugu deskribapeneri dagozkien informazioa lortzeko (lema, POS,...).

`TermMed_en` zerbitzariaren bitartez *SNOMED-CT browser*-ak erakusten duen hainbat informazioa lortuko dugu (FSN, SNOMED ID-ak, hierarkiak etab.).

Behin hau prest egonda, `anaMed_en` termino analizatzailea erabili ahal izango dugu ingeleseko terminoetatik informazio baliagarri guztia lortzeko.

#### 4.4.2 anaMed\_en

Esan dugun bezala, bezero honek funtzionamendu egoki bat izateko termMed\_en zerbitzaria martxan eduki behar dugu (baliabide guztiak kargatuak egoteko).

Analizatzaile honetan modu egokian tratatu izan ez den informazioaren (eponimoak identifikatu lema modu egokian agertzeko, lemaren arabera bilaketak egin etab.) zuzenketa egin da. Ikusi dugun bezala eponimoek (izen bereziak dituzten gaixotasunak, adibidez) berebiziko garrantzia izango dute terminoen analisia egiteko. Gainera, MedTerm\_en-eko SNOMED identifikatzailea eta Hierarkia esleituko zaio terminoari, AnaMed\_en bezeroaren bitartez.

## 4.5 Python eta Django-a

Produktua egiteko lana bi zati nagusitan banatua izan da: lehengo zatia Med\_eu sistema (produktu zati handiaren inplementazioa hemen egin da) eta bigarren zatia Django *framework*-aren inguruan (Med\_eu sistemaren beharra izango duen interfazea). Bi hauek erabiltzea erabaki oinarrian hartu diren tresnak hauek erabiltzen dituztelako (Med\_en sistema Pythonez zegoen eta aurretik eginda zegoen interfazea Django-n *framework*-a erabiltzen zuen).

### 4.5.1 Programazio-lengoaia

Med\_eu sistema egiteko erabili den lengoaia Python izan da. Programazio-lengoaia honen ardatz nagusia sintaxi garbi, erraz eta irakurgarria da (tabulazio egokia erabiltzea, adibidez).

Paradigma anitzeko lengoaia da, objektuetara zuzenduriko programazioa, programazio inperatiboa eta, neurri txiki batean, programazio funtzionala jasaten ditu. Lengoaia interpretatua da eta plataforma anitzetan erabiltzen da.

Lengoaia hau erabili da hainbat arrazoiengatik:

- Med\_en sistema Pythonez dagoelako.
- Kodea ulertzeko erraza delako.

- Kode lerro gutxi batzuk erabiliz funtzio indartsuak sortu ahal dira (beste programatzaileek aurretik sortu dituzten paketei (`import`) esker).
- Edozein sistema eragilean erabili daiteke.
- Ondoren sortu behar den interfazea Django-n *framework*-ean egin ahal izateko.

#### 4.5.2 Django

*Framework* bat da kode irekikoa Pythonez idatzita dagoena. MVC (*Model Controller View*, eredu-bista-kontrolatzailea euskaraz) arkitektura erabiltzen du.

*Framework*-ak hurrengo itxura hartuko du proiektu bat sortzerakoan:

```

/nireProiektua/
  manage.py
  nireProiektua/
    __init__.py
    settings.py
    urls.py
    wsgi.py

```

Testu-kutxa 4. 4: Django-ren hasierako fitxategiak.

Fitxategi hauek hurrengo hau adierazten dute:

`/nireProiektua/`: direktorio erroa. Errepositorio hutsa.

`manage.py`: proiektuarekin elkarrekintza baimentzen du.

`nireProiektua/`: proiektuaren Python paketea.

`nireProiektua/__init__.py`: fitxategi hutsa da non Python paketearen direktorioa bihurtzen duen.

`nireProiektua/settings.py`: Django proiektua konfiguratzeke ezaugarriak definitzen dira.

`nireProiektua/urls.py`: proiektuaren URL erazagupenak agertzen dira. Era batean esanda, proiektuaren aurkibidea izango litzateke.

`nireProiektua/wsgi.py`: zerbitzaria atzitzeko ezaugarriak definitzen dira.

`nireproiektua/views.py`: ekintzak sortzeko funtzioak hemen implementatuko dira. Fitxategi hau gizakiak sortu beharko du.

nireproiektua-ren direktorioaren barnean hainbat direktorio eta fitxategi gehiago aurki daitezke (proiektuaren beharretara moldatuz): `.html`-ak, `.css`-ak, `.js`-ak, ...

## INTERFAZEA SORTZEKO BEHARREZKO TEKNOLOGIAK:

Medikuntzarako terminoen informazioa lortzeko, interfaze bat garatu da. Interfaze honek informazioa modu erakargarrian ikusteko, web-orriak sortzeko eta diseinatzeko hainbat teknologia mota erabili ditugu.

### HTML:

HTML (*HyperText Markup Language*) markaketa lengoaia bat da, web-orriak egiteko sortu zena. Informazioa egituratzeko erabiltzen da — testua burualdean, paragrafo batean, zerrenda batean eta beste zenbaitetan sailkatuz — eta neurri batean itxura eta semantika ere deskribatzeko erabil daiteke.

HTML5 (HTMLko 5. bertsioa) *World Wide Web*-en (elkarloturiko hipertestuko dokumentuen sistema) oinarritzko hizkuntza den HTML-ren bosgarren berrikuste garrantzitsua da.

Informazio guztia HTML etiketen tartean egon behar da. Etiketak, `<etiketa>` `</etiketa>` edo `</etiketa>` itxura izango dute beti.

Hona eredu simple bat:

#### HTML kodea


```
<!DOCTYPE html>
<html>
  <head>
    <title>Page
Title</title>
  </head>
  <body>
    <h2>Hau
goiburukoa da</h2>
    <p>Hau testua da</p>
  </body>
</html>
```

#### Nabigatzailean bistaratuko dena

**Hau goiburukoa da**  
Hau testua da

Taula 4. 1: HTML kodearen eredu bat.

HTML5-ek elementu semantiko berriak eskaintzen ditu web-orri baten atal ezberdinak identifikatzeko (3.6 irudia).



Irudia 4. 6: HTML5-en elementu semantikoak.

Behin web-orria eginda, diseinuaren beharra izango dugu erakargarriagoa izateko. Honetarako CSS programazio-lengoaian definituriko estilo orriak beharko ditugu.

## CSS:

CSS (*Cascading Style Sheets* edo euskaraz kaskadako estilo-orriak) HTML edo XML (beraz, XHTML ere bai) lengoaian egituratutako dokumentu baten aurkezpena definitzeko balio duen lengoia da. W3C<sup>3</sup> da beronen definizioa mantentzen duen erakundea.

CSS lengoiaren helburu nagusia dokumentu baten edukia eta aurkezpena bereiztea da. CSS-ak hiru modu desberdinetan erabili daitezke:

### HTML + CSS

```
<!DOCTYPE html>
<html>
  <head>
    <title >Page Title</title>
    (3) <link rel="stylesheet"
    type="text/css"
    href=".cssFitxategiarairistekoPath" />
    (2) <style>
      p {
        font-family: "Verdana";
        font-size: 20px;
      }
    </style>
  </head>
  <body>
    (1) <h2 style="color: red" >Hau
    goiburukoa da</h2>
    <p>Hau testua da</p>
  </body>
</html>
```

Nabigatzailean bistaratuko dena

**Hau goiburukoa  
da**  
Hau testua da

Taula 4. 2: HTML eta CSS-aren eredu bat

<sup>3</sup> World Wide Web Consortium: *World Wide Web-erako* estandarrak sortzen dituen erakundea da



- **Etiketa bertan erabiltzea:** honela egin nahi badugu etiketa batean barruan `style=""` hitza erabili beharko dugu (aurreko taulako (1)).
- `<head>` etiketaren barruan `<style>` etiketa erabiltzea. (aurreko taulako (2)). Kasu honetan, `<p>` etiketa duten elementuei CSS aplikatuko zaie (verdana letra-estiloa eta 20px-eko tamaina ezarriz).
- Erabiliena da: Beste toki batean dagoen `.css` fitxategiari erreferentzia egiten dio.(aurreko taulako (3)).

### **id eta class atributuak CSS munduan:**

Bi atributu hauek etiketen artean idazten dira. Atributu hauen bidez etiketak identifikatzeko erabiltzen dira propietateak errazago esleitu ahal izateko (letren koloreak, letren tamaina, posizioak, ...). Normalean aurreko taulako (3) moduarekin konbinatzen da. `id` eta `class`, atributuen arteko diferentzia hurrengo hau da:

- `id`: errepikaezinak dira, hau da, bakarra. (“#” batez identifikatzen dira CSS estilo orrian).
- `class`: errepikatu daitezke. Hau da, etiketa desberdina `class` atributu berdina eduki dezakete (“.” batez identifikatzen dira CSS estilo orrian).

`id` eta `class` hauek dagokien estilo orrian bilatuko dute bere atributu baliokidea eta dagozkien propietateak esleituko zaie etiketei. Hau egiterakoan, etiketek itxura bat izango dute. Hona hemen hobeto ulertzeko adibidea (4.5 testu-kutxa):

`stylesheet.css` estilo orrian:

```
#kolorea { /*id mota*/
    color: red; /* letra gorria */
}
.lettraMota { /*class mota*/
    color: #b00ff0; /* letra lila */
}
```

*Testu-kutxa 4. 5: CSSko id eta class identifikatzaileak.*

HTML + CSS	Nabigatzailean bistaratuko dena
<pre> &lt;!DOCTYPE html&gt; &lt;html&gt;   &lt;head&gt;     &lt;title &gt;Page Title&lt;/title&gt;     &lt;link rel="stylesheet" type="text/css" href=" stylesheet.css " /&gt;   &lt;/head&gt;   &lt;body&gt;     &lt;h2 id="kolorea" &gt;Hau goiburukoa da&lt;/h2&gt;     &lt;p class="letraMota"&gt;Hau&lt;/p&gt;     &lt;p class="letraMota"&gt;testua&lt;/p&gt;     &lt;p class="letraMota"&gt;da&lt;/p&gt;    &lt;/body&gt; &lt;/html&gt; </pre>	<p>Hau goiburukoa da Hau testua da</p>

Taula 4. 3: HTML eta CSS id eta class atributuekin eredu bat

Beraz, web-orriari diseinua ezarrita, orain dinamikoki kargatzeko funtzioak gehitu behar zaizkio.

## JAVASCRIPT:

*JavaScript* (edo JS) interpretatutako programazio-lengoaia bat da, Java (objektuei zuzendutako programazio-lengoaia) programazio-lengoiarekin antzekotasun handia duena, baina web-orrien garapenera zuzenduta dagoena.

Hasiera batean HTML kodean txertatuta erabiltzen hasi zen, bezero aldeko lanak egiteko. Baina Web 2.0-aren iritsierarekin batera, AJAX edo JCC bezalako teknologiak erabiltzea ere ahalbidetzen du.

Goazen adibide batekin hobeto azaltzera. Adibide hauek hurrengo hau egingo du: <p> etiketaren ganean klik egiterakoan, klik egin deneko data eta ordua azalduko dira <div> etiketa batean. Horretarako `onclick()` deritzon ebentoa eta non nahi dugun datuak azaltzea esan beharko diogu. Kasu honetan *demo* id-a duen <p> etiketan data eta ordua azalduko da.

HTML+ JS	Itxura klikatu aurretik	Itxura klikatu ondoren
<pre> &lt;!DOCTYPE html&gt; &lt;html&gt; &lt;body&gt;  &lt;p onclick="document.getElementById Id('lor্তু').innerHTML = Date()"&gt; Lortu data eta ordua&lt;/p&gt; &lt;p id="lor্তু"&gt;&lt;/p&gt;  &lt;/body&gt; &lt;/html&gt; </pre>	Lortu data eta ordua	Lortu data eta ordua  Sat Jun 11 2016 18:17:15 GMT+0200 (CEST)

Taula 4. 4: JS eta HTML-ren eredu bat

Bukatzeko, AJAX teknologia erabilia izan da JavaScript hainbat funtzioetan (ikusi 6.36, 6.38, ... testu-kutxak) AnaMed\_eu bezeroa eta sct4text funtzioa deitzeko (6.6 Azpitala).

## AJAX:

Ajax (*Asynchronous JavaScript and XML*) hurrengo teknologiak bateratuz web elkarrenragileen garapenerako teknika da. Zerbitzariarekin informazio gutxi trukatzuz web-orrialdeak harkorrangoak bihurtzeko asmoarekin sortu zen. Modu horretan ez dago orrialdea errefreskatu beharrik erabiltzailea eskatzen duenean. Web-orrialdeen abiadura, elkarreragina, funtzionalitatea eta erabilgarritasuna handitzen ditu.

Ajax teknologiari esker, erabiltzaileak ez du zuzenean web-zerbitzarira eskaera egiten; Ajax motoreari eskaera egin, eta berau arduratzen da web-zerbitzariarekin konexioa egiteaz. Motorearen bitartez informazioa jasotzean, bistaratu egiten da. Guzti honi esker AJAX aplikazio batek mahaigaineko aplikazio batek bezalaxe lan egin dezake, non datuak eguneratzeko pantaila osoa eguneratu beharrik ez dagoen.

## HTML + JS + AJAX

```
<!DOCTYPE html>
<html>
<body>
<div id="demo"><h3>AJAX testu hau
aldatuko du</h3></div>

<p      onclick="loadDoc()">Aldatu
formatua</p>

<script>
function loadDoc() {
    var      xhttp      =      new
XMLHttpRequest();
    xhttp.onreadystatechange      =
function() {
        if(xhttp.readyState==4&&
xhttp.status      ==200) {
document.getElementById("demo").i
nnerHTML = xhttp.responseText;
        }
    };

    xhttp.open("GET", "ajax_info.txt",
true);
    xhttp.send();
}
</script>
</body>
</html>
```

Itxura klikatu Itxura klikatu ondoren aurretik

**AJAX testu hau aldatuko du**

Aldatu formatua

AJAX ez da programazio lengoai berria

AJAX web-orri dinamikoak eta azkarrak sortzeko teknika bat da.

Taula 4. 5: AJAX, JS eta HTML-ren eredu bat

Adibide honekin ikusi dezakegu nola `<p>` etiketa testuaren gainean klik egiterakoan zegoen testua desagertuko (`<div>` etiketan agertzen dena kenduz ere) den, testu berria agertuz (zerbitzariari dei eginez `xhttp.open` funtzioaren bitartez).

Bukatzeko esan beharra dago, AJAX asinkronoa dela. Beraz, honen bidez web-orri azkarrak sortu ditzake. Modu sinkronoan erabili daiteke AJAX ere.

Erabiliko dugun teknologia azaldu ondoren, hurrengo orrietan (5. Atala) `Med_en` eta `Med_eu` sistemen analisia egingo dugu eta haien klase-diagramak eta erabilpen-kasuak azalduz.

# 5

---

## Analisisa

Esan dugun bezala, lehendabizi Med\_en sistemaren analisisa egingo dugu. Atal honetan argi ikusiko da zer zegoen egina eta zer aldatu den Med\_eu sistema sortzeko. Ondoren, Med\_eu sistema erabiliko duen aplikazioari buruz hitz egingo dugu, OsatEUS deiturikoa.

### 5.1 Arkitektura

Med\_en sistema hiru zatitan banatzen da (bi zerbitzari eta bezero bat):

**Zerbitzariak:**

- CoreNLP (corenlp.py): *Stanford* unibertsitateko analizatzaile linguistikoa da zerbitzari moduan erabilia. Terminoen analisisa ingelesez

egiteko baliabideak eskaintzen ditu. Terminoen informazio lexikoa (lema edo *POS*, adibidez) zerbitzari honetatik lortuko dugu.

- `TermMed_en` (`ts_en.py`): baliabideak kargatuko dira (kontzeptuak, terminoak, deskribapenak, ...) hainbat prozesu igaro ondoren. Baliabide hauek era egokian kargatzeko, `klaseak.py` moduluaren beharra izango dugu, non *concept* edo *description* bezalako ezaugarriak hiztegi (*dictionary*) moduan kargatuko diren<sup>4</sup>. Zerbitzari honetatik terminoen FSN, hierarkiak edo ID-ak lortuko dira, esate baterako.

### **Bezeroa:**


- `AnaMed_en` (`analizatzailea_en.py`): eponimoak eta antzeko hitz bereziak modu egoki batean tratatuko ditu. Horretarako, `eponimoak.txt` fitxategia beharko du (eponimo guztiak hemen aurkituko dira). Ingelesko terminoaren analisia bueltatuko dio erabiltzaileari (hierarkia, *sctId*, ...). Esan den bezala, `TermMed_en` zerbitzariari deituko dio terminoaren hierarkiak edo ID-ak terminoaren analisiari gehitzeko.

Bukatzeko, esan beharra dago 5.1, 5.2 eta 5.3 irudietan agertzen diren `.txt` guztiak Olatz Perez de Viñaspre-renak direla. Hona hemen `Med_en` arkitectura moldaketak egin aurretik eta ondoren (hainbat aldaketak egin dira sistema hobetzeko asmoarekin).

---


<sup>4</sup> Beste hizkuntzetan (Javan adibidez) *hash* izena edukiko zuten, hau da, *dictionary* = *hash*

**MED\_EN SISTEMAREN ARKITEKTURA AURRETIK:**



*Irudia 5. 1: Med\_en sistemaren hasierako arkitektura.*

**MED\_EN SISTEMAREN ARKITEKTURA ONDOREN:**



*Irudia 5. 2: Med\_en sistemaren bukaerako arkitektura.*

Ikusten den bezala aldaketa esanguratsuen `analisiak_en.json` (ikusi 6.3.1.1 azpiatala) fitxategiaren sorkuntza izan da. Fitxategi honen barruan termino bakoitzaren informazio lexiko guztia gordeko da `TermMed_en` kargaketa askoz azkarragoa izateko (ikusi 6.3 azpiatala). Beraz, `AnaMed_en` soilik *Stanford*-en analisia beharko du `analisiak_en.json` fitxategitik edo termino batzuk ezabatuak izan direnean hauen kargaketa egiteko.

`Med_en` sistema bi zatitan banatuko da ere (kasu honetan, bezero eta zerbitzari bat edukiz):

### Zerbitzaria:

- `termMed_en` (`ts_eu.py`): baliabideak kargatuko dira (kontzeptuak, terminoak, deskribapenak,...) hauen analisia egin ondoren. Baliabide hauek era egokian kargatzeko, `klaseak_eu.py` moduluaren beharra izango dugu. Kasu honetan ez dira hiztegietan gordeko, baizik eta objektuetan graduan zehar objektuekin lan egin dugulako. Horretarako, lau klase berri sortu ditugu gure `klaseak_eu.py`-n:

- o *concept*: hemen kontzeptuak gordeko dira.
- o *relationship*: kontzeptuen arteko erlazioak adieraziko dituzte.
- o *description*: kontzeptuen deskribapenak biltegitatuko dira.
- o *language*: deskribapena zein hizkuntzan egongo den adieraziko du.

Lau objektu hauen atributu guztiak klase-diagraman daude (4. 4 irudia). *Stanford* zerbitzaria *wrapper* (ikusi 6.4 azpiatala) batekin ordezkatzeko dugu `eustagger-lite` erreminta erabiltzen duena:

- o *Wrapperra* (`wrapper_eustagger.py`): euskarazko terminoen analisia egingo da. Horretarako `Eustagger-lite` erreminta erabiliko dugu. Behin `Eustagger-lite`-k analisia eginda NAF formatutik JSON formatura pasako da terminoa.

Ingeleseko bertsioan bezala, zerbitzari honetatik erabiltzaileak sartu dituen terminoaren FSN, hierarkia edo SNOMED ID-ak lortuko ditu, besteak beste.


### Bezeroa:

- `anaMed_en` (`analizatzailea_eu.py`): ingeleseko funtzionalitate berdina edukiko du. Hemen, eponimoak modu sakonago batean tratatu behar izango dira euskarak duen morfosintaxiarengatik



(Down eponimoa lortu behar izango dugu Down, Down-en eta Downen hitzekin). Ingelesko bezeroan bezala, termMed\_eu zerbitzariari deituko dio erabiltzaileak idatzi duen terminoaren hierarkiak edo ID-ak analisiari gehitzeko.

Interfazean, erabiltzaileak idazten duenaren (testu hutsa) analisia egin eta terminoak detektatuko ditu pantailaren eskuinaldean adieraziz zeintzuk diren etiketa kolore mota desberdinak erabiliz (hierarkiaren arabera koloreak esleituko dira). Hau egiteko AnaMed\_eu behar izango da:



Irudia 5.3: Med\_eu sistemaren bukaerako arkitektura.

Adibide baten bidez hobeto azalduko dugu. Horretarako, eponimo bat duen termino bat aukeratu dugu “Downen sindromea” izenekoa:

**AURREBALDINTZA:** TermMed\_eu zerbitzaria martxan egotea.

**URRATSAK:**

- 1.- Erabiltzaileak interfazeko testu-kutxa batean Downen sindromea idaztea eta ondoren kurtsorea testu-kutxatik kentzea.
  - 2.- Interfazeak AnaMed\_eu deituko du.
  - 3.- AnaMed\_eu konprobatuko du ea termino bat den.
- Horretarako, analisiak\_eu.json fitxategian begiratu beharko du ea

Downen sindromea dagoen. Honengatik, TermMed\_eu zerbitzaria martxan egon behar du.

4.- Hau baldinba dago fitxategian Downen sindrome-aren informazio lexikoa, SNOMED Identifikatzailea eta hierarkia bueltatuko du JSON formatuan.

5.- AnaMed\_eu konprobatuko du ea eponimorik dagoen terminoan eta hau modu egokian tratatuko du (Downen-etik Down-ra pasako da izatera). Gainera, termino luzeenaren kontrola egingo da (termino anitza).

6.- Terminoa denez, interfazearen eskuinaldean kolore batez terminoa etiketatua agertuko da (ikusi 6.6 azpiatala). Kasu honetan, etiketa gorrixka izango da.

Behin Med\_en eta Med\_eu sistemen arkitekturak azaldu ondoren, hauek programazioari dagokionez nola dauden antolatuta ikusiko dugu, klase-diagramak azalduz. Lehendik, Med\_en klase-diagramarekin hasiko gara.

## 5.2 Klase-diagrama

Med\_en klase diagramaren azalpena (kolore laranja):

Med\_en klase diagrama lau kudeaketa-kontzeptuetan banatuta egongo da (*DescriptionList*, *LanguageList*, *RelationshipList* eta *ConceptList*) non hiztegietan gordeko diren (beste lengoaietako *hash*-ak) deskribapenak, hizkuntzak, erlazioak eta kontzeptuak,.


*ConceptList*-etan kontzeptuak gordeko dira eta berdina beste hiru kudeaketa-kontzeptuekin.

Kontzeptu batek beste kontzeptu batzuk eduki ditzake eta gainera, *ConceptList* batek *DescriptionList* bat edo gehiago edukiko ditu (*FSN* edo *Synonym* bezalakoak). *DescriptionList* hizkuntz (*LanguageList*) bakarrean edo bitan egon daiteke bere formatuaren arabera (RF1 edo RF2). Bukatzeko, *ConceptList* batek *RelationshipList* bat izango du kontzeptuen arteko erlazioak ezartzeko (*isa* motakoa kontzeptu umeak eta gurasoak ezberdintzeko).

Med\_eu sistemarentzako lau objektu-kontzeptu sortu izan dira (*Concept*, *Description*, *Language* eta *Relationship*) eta hauek Med\_en-en zeuden kudeaketa-kontzeptuekin lotuko dira. Lau objektu hauek klase-

diagraman horiz agertuko dira eta ez dute Men\_en-en funtzionamendua aldatuko. Objektuko atributu bakoitzari dagozkien get() eta set() funtzioak ez dira azalduko, klase-diagrama handiegia ez izateko.

Hurrengo itxura hartuko du klase diagramak:




Irudia 5. 4: Bi sistemen klase-diagrama.

Bi sistemen klase-diagramak erakutsi ondoren, OsatEUS aplikazioaren egiturari buruz hitz egingo dugu aplikazio honek duen elementuak erakutsiz.

## 5.3 OsatEUS egitura

Aurretik erdi eginda zegoen osatEUS aplikazioari buruz baliatu gara. Egin den aldaketarik nabarmentsuena espezialitate bakoitzaren interfazea moldatzea izan da, erabiltzaileak sartzen dituen terminoak detektatzeko.

Aplikazio honen alta-txosten (Basabe, 2014) eremuan (ikusi E eranskina) espezialitate, atal eta azpiatalez osatuta dago. Hau da, aplikazioaren datu-basean hainbat espezialitate mota daude (aparatu-digestioa, ...). Espezialitate bakoitzak hainbat atal edukiko ditu (gutxi batzuk hautazkoak izango direnak) eta atalak azpiatalak eduki ditzakete. Atal eta azpiatal eremuetan erabiltzaileak osasun-txostenari dagokiona idatziko du. Osasun-txostenak era egokian bete ondoren, datu-basean gordeko dira identifikatzaile bat emanez erreferentziatzat. Hauxe da bere egitura (5. 5 irudia):



Irudia 5. 5: OsatEUS aplikazioaren egitura.

Hona hemen hobeto ulertzeko alta-txosten bat (alta-txosten honetan ez da testu guztia agertuko kasu honetan ez delako garrantzitsua):

ALTAREN TXOSTEN KLINIKOA (41)	
<b>ANESTESIOLOGIA ETA BERPIZTEA</b>	
<p><b>OSPITALERATZEKO/KONTSULTARAKO ARRAZOIA.</b> Tenporalaren eta <b>masailezurraren</b> arteko artroplastia egin ondoren, lekualdaturiko 67 urteko gizonezkoa.</p> <p><b>ALTAREN ARRAZOIA.</b> Aurpegi-masailetakoa eta ahoko Kirurgiako Zerbitzura lekualdatzea.</p> <p><b>AURREKARIAK.</b> Alergia die penizilinari, pobidona iododunari eta <i>Anisakisari</i>; erretzaile ohia da, hipertentsio arteriala du eta ...</p> <p><b>EGUNGO GAIXOTASUNA.</b> Aspaldiko traumatismoaren ondorioz, pazienteak <b>masailezurraren</b> eta tenporalaren arteko ankilosia zuen. 2013ko azaroaren 27an, programatutako ebakuntza egin zaio...</p> <p><b>EBOLUZIOA</b> <b>BIZKORKETARAKO GELAN.</b> Kontziente dago, arnas autonomia du eta hemodinamikoki egonkor dago.</p> <p><b>ALTA EMATERAKOAN.</b> Tentsio arteriala, 100/50 mm Hg. Tratamendu basoaktiborik gabe. Bihotz-maiztasuna, 54 tau/min; arnas... <b>BIHOTZAREN AUSKULTAZIOA.</b> Murmurio erritmikoak. <b>BIRIKEN AUSKULTAZIOA.</b> Arnas murmurioa entzuten da... <b>SABELALDEA.</b> Biguna eta zanpagarria; haztatzean... <b>GILTZURRUNAK.</b> Diuresi egokia, medikaziorik gabe.</p> <p><b>PROBA OSAGARRIAK.</b> <b>BIOKIMIKA.</b> Kreatinina, 1,41 mg/dl. <b>HEMOGRAMA.</b> Hemoglobina, 12,3 g/dl; plaketak, 280.000; leukozitoak, 8.300. <b>KOAGULAZIOA.</b> Nazioarteko ratio normalizatua (INR), 1,1.</p> <p><b>DIAGNOSTIKOA TENPORALAREN ETA MATRAILEZURRAREN ...</b></p> <p><b>TRATAMENDUA ETA GOMENDIOAK.</b> Anestesiako Zerbitzuaren aldetik ez du tratamendu edo jarraipen berezirik behar. Tratamendua, Ahoko eta...</p>	
	Sinadura-data1/1 orrialdea

Hona hemen eremu bakoitzaren sailkapena:

- **ESPEZIALITATEA (beltza):** ANESTESIOLOGIA ETA BERPIZTEA.
- **ATALAK (urdina):** OSPITALERATZEKO/KONTSULTARAKO ARRAZOIA, ALTAREN ARRAZOIA, AURREKARIAK, EGUNGO GAIXOTASUNA, EBOLUZIOA BIZKORKETARAKO GELAN, ALTA EMATERAKOAN, PROBA OSAGARRIAK, DIAGNOSTIKOA eta TRATAMENDUA ETA GOMENDIOAK.
- **AZPIATALAK (berdea):** BIHOTZAREN AUSKULTAZIOA, BIRIKEN AUSKULTAZIOA, SABELALDEA, GILTZURRUNAK, BIODIMIKIA, HEMOGRAMA eta KOAGULAZIOA.


Behin bi sistemen klase-diagramak eginda eta *framework*-aren, aplikazioaren egituraz hitz egin ondoren, honen erabilpen-kasuei buruz hitz egingo dugu.

## 5.4 Erabilpen-kasuak

Azalpen bat da prozesu bat bete ahal izateko. Horretarako urrats edo ekintza batzuk egin beharko dira. Parte hartzen duten pertsonaiek aktoreak deitzen zaie. Gure kasuan aktore hauek administratzailea eta erabiltzaile erregistratua izango dira. Aktore bakoitzak erabilpen kasu jakin batzuk egin ahal izango ditu. Hau da, erabiltzaile batek (kasu honetan) ezin izango du espezialitate bat sortu ez duelako hau egiteko baimenik.

Bukatzeko, erabilpen-kasuak software ingeniartzaren inguruan interakzio sekuentzia batzuk dira sistema eta aktoreen artean garatuko direnak.

Hona hemen dauden erabilpen-kasuak (5.6 irudia). Laranja ikus ditzakegun erabilpen-kasuak proiektu honetan sortuak izan direnak dira eta txuriz aurretik sortuak zeudenak. Proiektu honentzako sortuak izan diren hiru erabilpen-kasuak hobeto azalduko ditugu eta aurretik sortuak zeudenak laburpen bat soilik emango da.



Irudia 5. 6: Erabilpen-kasuak.

## ERABILPEN-KASUEN AZALPEN LABURRAK:

**Erabiltzaile erregistratua:** zortzi erabilpen-kasu ditu

*Login egin:* erabiltzaileak aplikaziora sartzeko bere erabiltzaile izena eta pasahitza behar izango du. Behin bi hauek ondo sartu izan direla, erabiltzailea sistemaren barruan egongo da.

*Logout:* erabiltzailea irten *link*-aren gainean *klik* egiterakoan sistemaren kanpo egongo da.

*Pasahitza berreskuratu:* erabiltzailea (oraindik ez duena *login* egin) ez badu bere pasahitza gogoratzen pasahitza berreskuratzeko aukera edukiko du. Horretarako, bere *email*-a idatzi beharko du eta korreetik pasahitza berreskuratzeko egin beharrekoa izango du.

*Osasun-txostenak sortu:* Osasun-txostenak sortu ahal izango ditu behin sisteman *login* egin ondoren. Hemen osasun-txostenaren hainbat eremuetan idatzi behar izango du (atal eta azpiatal) espezialitatea aukeratu ondoren.

*Osasun-txostenak editatu:* Osasun-txosten bat edo batzuk sortu ondoren, hauek editatu ahal izango ditu eta sisteman moldaketa gordeko da.

### **1.-Terminoak detektatu:**

**LABURPENA:** behin *login* eginda eta atal edo azpiataletan idatzi ondoren, sistemak hainbat termino detektatuko ditu. Termino mota bakoitza kolore batean agertuko da hierarkia mota esleituz.

**AURREBALDINTZA:** saioa hasita izan.

**POSTBALDINTZA:** erabiltzaileak idatzi duen testutik terminoak detektatzen dira kolorezko etiketen bidez.

**GERTAERA-FLUXU NORMALA:**

- **Erabiltzailea:** espezialitate bat aukeratzen du.
- **Erabiltzailea:** beharrezkoak diren atazak eta azpiatazak betetzen ditu.
- **Sistema:** terminoak detektatzen ditu erabiltzaileak kurtsorea testu eremutik kentzerakoan.

**GERTAERA FLUXU ALTERNATIBOA:**

- **Erabiltzailea:** euskarak ez dituen berezko karaktereak (ñ, è, ë,...) erabiltzaileak erabili ditu.
  - o **Sistema:** *popUp* leiho bat bueltatuko du karaktere hauek ezin direla erabiliz esanez.

### **2.- Termino anbiguoak adierazi:**

**LABURPENA:** terminoak detektatu ondoren hainbat termino azpimarratuak agertuko dira. Termino anbigua dela esan nahi du.

**AURREBALDINTZA:** saioa hasita izan eta hainbat termino detektatu izana.

**POSTBALDINTZA:** anbiguoak diren terminoak azpimarratuak agertuko dira.

**GERTAERA FLUXU NORMALA:**

- **Sistema:** terminoaren analisia egingo du bilatuz ea SNOMED identifikatzaile bat baino gehiago dauden.

**GERTAERA FLUXU ALTERNATIBOA:**



Ez dago.

**3.-FSN eta ID bistaratu:**

**LABURPENA:** terminoak detektatu eta hauen gainean klikatu ondoren (anbiguoak edo ez) *popUp* leiho bat agertuko da, hauen SNOMED ID eta FSN-ak bueltatuz.

**AURREBALDINTZA:** saioa hasita izan eta hainbat termino detektatu izana.

**POSTBALDINTZA:** *PopUp* leiho berria agertzea terminoari dagokion SNOMED ID eta FSN-ekin

**GERTAERA FLUXU NORMALA:**

- **Erabiltzailea:** etiketatuta dagoen termino baten gainean klikatu.
- **Sistema:** termino horri dagozkion SNOMED ID eta FSNak bistaratu.

**GERTAERA FLUXU ALTERNATIBOA:**

Ez dago.

**Administratzailea:** hamahiru erabilpen-kasu ditu (berek bost eta erabiltzaile erregistratuaren zortziak).

*Erabiltzailea sortu:* administratzaileak erabiltzaileak sortu ahal izango ditu, nahi dituen pribilegioak emanaz. Administratzailea beste administratzaileak sortu ahal izango ditu ere.

*Osasun-txostenak kudeatu:* Administratzaileak osasun-txostenak kudeatu ahal zaingo ditu. Hau da, espezialitate berriak, espezialitate horien atalak eta atal hauei azpialak berriak gehitu ditzake.

*Espezialitatea gehitu:* espezialitate berriak gehitu ahal izango ditu (aparatu digestiboa, adibidez...).

*Atala gehitu:* espezialitate horiei atal berriak gehitu ahal izango dizkio (ospitaleratzeko/kontsultarako arrazoia, ...).

*Azpialak gehitu:* atalei azpialak gehitu ahal izango dizkio (bihotzaren auskultazioa edo biriken auskultazioa).

Behin bi sistemen eta aplikazioaren analisisa eginda, hiru hauek garatzeko egin den inplementazioari buruz hitz egingo dugu kode zatiak erakutsiz prozedura hobeto ulertzeko.

# 6

---

---

## Implementazioa

Atal honetan produktuaren implementazioa eta hartu diren erabakiak era justifikatu batean azalduko dira. Esan den bezala, med\_en sistema hobetuko dugu (6.1, 6.2 eta 6.3 azpiatalak) eta Med\_eu sistema sortuko dugu Med\_en sisteman oinarrituta (6.3, 6.4 eta 6.5 azpiatalak). Gainera, OsatEUS deituriko aplikazioa osatuko dugu (6.6 azpiatala) Med\_eu sistemako AnaMed\_eu analizatzailea erabiliz. Erabiltzaileak idazten duen testuaren terminoak detektatu eta etiketa kolorea esleituko zaio terminoei (bakunak, anitzak nahiz anbiguoak), bukaerako emaitza hau izanez. Bukatzeko, sortu diren arazoak eta hauen konponbideak azalduko ditugu (6.7 azpiatala).

## 6.1 Objektuen sorkuntza

Analisi atalean (5. Atala) esan den bezala, lau objektu berri sortu ditugu: *Concept* (kontzeptua), *Relationship* (erlazioa), *Descriptions* (deskribapenak) eta *Languaje* (lengoaia)

Hona hemen *Concept* klasea. Klase bakoitzean `__init__` deritzon funtzio pribatua gehitu da dagozkien atributuekin objektua hasieratu ahal izateko. Atributu bakoitza `self.` aurrizkiarekin egongo da adierazita (6.1 testu-kutxa).

```
class Kontzeptua:

    def __init__(self, cId, isP, fsn = "", snoId = "",
synDesc = "", preDesc = ""):
        self.conceptId = cId
        self.isprimitive = isP
        self.fullySpecifiedName = fsn
        self.snomedId = snoId
        self.synonymDesc= synDesc
        self.preferredDesc = preDesc
```

*Testu-kutxa 6. 1: kontzeptu objektuaren funtzio hasieratzailea.*

Lau objektuek dituzten atributu guztiak `get` eta `set` funtzioen bidez hasieratu behar dira (6.2 testu-kutxan ez dira atributu guztiak idatzi azpi atal hau luzeegia ez izateko).

```
def setConceptID(self, cId):
    self.conceptId = cId

def getConceptID(self):
    return self.conceptId

def setIsPrimitive(self, isprimitive):
    self.isprimitive = isP

def getIsPrimitive(self):
    return self.isprimitive

...
```

*Testu-kutxa 6. 2: kontzeptu objektuaren get eta set funtzioak.*

Beste hiru objektuekin berdina egin dugu, bakoitzari dagozkion atributuak esleituz (ikusi 6.1 eta 6.1 testu-kutxak).

Behin objektuak sortuak izan direla, aurretik sortuak zeuden funtzioak (*LanguageList*, *ConceptList*, *DescriptionList* eta *RelationshipList*-eko `__init__` funtzioak) moldatuak izan dira.

Sortu berri diren objektuak deitu behar izan ditugu hauek hasieratu ahal izateko eta dagozkien parametroak pasa. Hau egin da `languageJaso`, `erlazioaJaso`, `kontzeptuaJaso` eta `deskribapenaJaso` funtzioetan. Hona hemen `kontzeptuaJaso`-ko erredua:

```
def kontzeptuaJaso(self, line):
    eremuak = line.strip().split('\t')
    ...
    concept = Kontzeptua(eremuak[0], eremuak[5],
eremuak[2], eremuak[4]) #objetuari balioak pasa
```

*Testu-kutxa 6. 3: Hasieratze funtzioari deitu.*

Set-etan bihurtzeko:

```
c.fullySpecifiedName = d.term -> c.setFSN(d.term)
```

*Testu-kutxa 6. 4: set funtzioaren bihurketa.*

Get-etan bihurtzeko:

```
d.conceptId -> d.getConceptId()
```

*Testu-kutxa 6. 5: get funtzioaren bihurketa.*

Hau eginda, `klaseak.py` eta `klaseak_eu.py` hiztegiatik objektuetara moldatuta izango genuke finkatutako helburu bat betez. Beraz, kontzeptu, erlazio, deskribapen eta hizkuntzak beste modu batera biltegiatzea lortu dugu. Behin hau eginda (graduan objektuekin lan egiten ikasi dugulako), `Med_eu` sistema hobetzen hasiko gara bilaketak lemaren arabera eginez.

## 6.2 Terminoak identifikatzen lemaren arabera

Ingeleseko bertsioan ez bezala, euskarazko bertsioan terminoen sctId-a (SNOMED identifikatzailea) modu egoki batean aurkitu ahal izateko lema<sup>5</sup> behar izango ditugu.

Ingeleseko bertsioan ez du berezko garrantzia deskribapenak (edo terminoak) eta hauen lema askotan berdinak izango direlako (ikusi 6.1 taula).

Terminoak	Lema
Down syndrome	Down syndrome
Allergy	allergy
Sore throat	sore throat
Head ache	head ache

Taula 6. 1: terminoak eta lemaren arteko ezberdintasuna ingelesez

Ingelesaren kasuan ezaugarri hau dela eta, bilaketak deskribapenaren edo lemaren arabera egin daitezke, hauen artean ez baitago diferentzia handirik (ikusi 6.1 taula). Euskarazko bertsioan, aldiz, honen arabera bilaketak egitea berebiziko garrantzia izango du euskarak duen morfologiarengatik. Hau da, etxetik, etxera edo etxeak hitz desberdinak izan arren, lema berdina edukiko dute etxe hain zuzen ere (6.2 taulan adibide gehiago ikus ditzakegu).

Terminoak	Lema
Downen sindromea	Down sindrome
Down-en sindromea	
Down sindromea	
Downen sindromearekin	
Alergiarik	Alergia
Alergia	
Alergiarekin	
Buruko mina	Buru min
Buruko minarekin	

Taula 6. 2: terminoak eta lemaren arteko ezberdintasuna euskaraz.

<sup>5</sup> Unitate autonomoa hizkuntza baten lexikoari dagokiona

Beraz, lemaren arabera bilaketak egin behar izango ditugu bilaketak arrakastatsuak izateko. Horretarako, hurrengo aldaketa hauek egin dira deskribapen (termino) bakoitzaren lemari SNOMED Identifikatzailea ezartzeko. SNOMED Identifikatzailea lortu da 6.1 azpiataleko `get (getConceptId())` funtzio baten bidez. Aldaketa hauek `DescriptionList()` klaseko `__init__` funtzioan egin dira:

```

self.lemArabera =[] #aldagaia hasieratzen
...
#for-aren bidez termino bakoitzaren lemma guztiak
lortuko ditugu eta kateatuko ditugu.
lemmak = ""
sentence = result['sentences']
for sentence in result["sentences"]:
    lemma = sentence[1]['Lemma']
    lemmak +=str(lemma)+" "
#azkeneko karakterea ezabatu (" ")
lemmak = lemmak[:-1]
#kontzeptuaren (terminoa) ida lortu
cId = d.getConceptId()
#lemeei kontzeptuen ID-aren arabera identifikatu
self.lemArabera[lemmak] = cId

```

*Testu-kutxa 6. 6: terminoen lemei dagozkien SNOMED IDak esleitu.*

`self.lemArabera` aldagaiak termino jakin baten lema eta termino horri dagokion SNOMED Identifikatzailea (`'Lema': 'SNOMED ID'`) bueltatuko luke:

```

{'kordegabetu': '271594007', 'perikolangitis': '111373008',
'linfoma histiozitiko egia': '109988003', 'ondoez jarri':
'271594007', 'lipofuszinosi zeroide neuronal': '61663001',
'huts hurrengo': '271594007', 'makal': '271594007',
'dermatitis esfoliatiboa': '396350005', 'txiki':
'271594007', 'pattal': '271594007', 'larruazal muzinosia':
'238946004', 'alditxar egin': '271594007',
'hiperaldosteronismo primario': '237742008', 'indargabe':
'271594007', 'lo ( ara ) trastorno , zehaztugabe':
'230498005', 'konorte-galera': '271594007'}

```

*Testu-kutxa 6. 7: lema bakoitzak edukiko duten SNOMED IDak.*

Ikus dezakegu nola lema bakoitzak SNOMED Identifikatzaile bat izango duen gutxienez. Behin hau eginda, erabiltzaileak idazten dituen terminoen lemak lortu behar izango ditugu (termino luzeena lortuz). Horretarako, hurrengo hau gehitu zaio (6.8 testu-kutxako) bezeroaren `snomedIdentifikatu()` funtzioan (beltzez agertzen dira egin diren aldaketak eta gehikuntzak).

```

for token in tagged:
    forma,info = token
    formak.append(forma)
    llag = len(fArray)
    k += 1
    fArray.append(forma)
    #erabiltzailearen idatzi duen terminoaren lemmak
    kateatuko ditugu array batean
    lArray.append(info["Lemma"])
    for i in range(0,llag):
        #l aldagaian lArrayko elementua kateatu string
        batean
            l = lArray[i] + " " + info["Lemma"]
            f = fArray[i] + " " + forma
            lArray[i] = l
            fArray[i] = f
            kodT = des.desc2sct('', l.lower())

```

Testu-kutxa 6. 8: termino anitzetatik SNOMED ID lortu.

Hau da, lemmak kateatuz (append() funtzioa) termino luzeenaren SNOMED Identifikatzailea lortuko gendake (existitzen bada) desc2sct() funtzioaren bitartez. desc2sct() moldatu beharko dugu lemArabera listan SNOMED ID-ak lortzeko. Horretarako, l.lower() parametrotzat pasako zaio (beltzez agertzen dira egin diren aldaketak).

```

def desc2sct(self,desc,lemma):
    return json.dumps(self.desZer.kodeaLortu (desc,lemma))

#get funtzioaren bitartez lemma sartzerakoan honen Ida
buletatuko du
def kodeaLortu(self,forma,lemma):
    if lemma:
        return self.lemArabera.get(lemma, '')
    else:
        return self.lemArabera.get(forma, '')

```

Testu-kutxa 6. 9: lemmen arabera SNOMED ID-a lortzeko funtzioa.

Hona hemen prozesuaren adibide bat:

1.- erabiltzaileak sartutako terminoa: *hiperaldosteronismo primarioa*

2.- bi hitzen lemmak lortu: *hiperaldosterismo, primario*

3.- lemmak konkatatu: *hiperaldosterismo primario*

4.- begiratu lema hau *lemArabera* aldagaian aurkitzen den (ikusi 6.7 testu-kutxa).

5.- *lemArabera* aldagaian dagoenez, terminoa da eta 237742008 SNOMED identifikatzailea lortuko luke (6.9 testu-kutxaren funtzioen ondorioz).

Hau guztia egin ondoren, terminoak lemaren arabera bilatzea lortuko genuke eta euskararako bertsiorako oso lagungarria izango da bilaketak egiterakoan. Deskribapen baten lema lortzeko hitzaren analisia egin behar dugunez (*eustagger-lite* eta *Stanford* analizatzaileei hainbat deiak egin behar dizkiegu) sistema asko moteltzen da. Hau dela eta, datu-base bat sortu behar dugu arazo honi aurre egiteko. Beraz, hurrengo atalean hainbat datu-base moten analisia egingo da aproposena aukeratuz.

## 6.3 Datu-basea

Ingeleseko bertsioan deskribapenak kargatzerakoan 500.000 deskribapen baino gehiago zeudenez, denbora asko behar zuen.

Segunduro bost edo lau deskribapen kargatzen ziren. Hasiera batean, 512.724 deskribapen genituen eta demagun kasurik onenean bost deskribapen segunduro kargatzen direla:

$$\frac{512724}{5} = 102544,8 \text{ segundu} \approx 29 \text{ ordu}$$

*Testu-kutxa 6. 10: ingeleseko informazio lexikoa duen fitxategia sortzeko behar izan den denbora.*

29 ordu pasako lituzke (ikusi 6.10 testu-kutxa) *MedTerm\_en* sistemak deskribapenak soilik kargatzen, eta hau ez da bideragarria. Zailtasun hau ekiditeko, datu-base bat sortu dugu (lehendik ez zegoena, deskribapenak *RF1* fitxategi batetik datuak atzitzen zirelako *.txt* formatua duena), eta horretarako hainbat baliabideen analisia egin dugu zein den egokiena aukeratzeko, hots, zein sistema den azkarren.

Euskarako bertsioan aldiz, deskribapen kopuru txikiagoa izango da (222504) baino hauen analisia motelagoa da *eustagger\_lite* analizatzailea motelagoa baita. Sei segunduro bost deskribapen idazten dira, hau da, 1.2 segundo behar dira deskribapen bakarra idazteko.



Eustagger\_lite analizatzailea erabili behar dugu lematizatzailea delako (eta bilaketak lemen arabera egingo direlako).

Demagun 1.2 segundo behar dela analisi bat egiteko, beraz:

$$222504 \times 1.2 = 267004,8 \text{ segundo} \approx 74 \text{ ordu}$$

*Testu-kutxa 6. 11: : euskarazko informazio lexikoa duen fitxategia sortzeko behar izan den denbora.*

Beraz, bi datu-base sortuko dira ingeleseko eta euskarazko MedTerm zerbitzariak deskribapenak azkarrago kargatzeko eta honekin batera, bi zerbitzarien martxan jartzea azkarragoa izateko.

Lehendik ataza hau azkartzeko erabili daitezkeen errekurtso posibleak adierazi (kusi 5.3 taula) eta zer diren deskribatu dugu (hasieran sarrera motz batekin eta ondoren baliabideen deskribapen sakonagoa eginez). Hau egin ondoren, denen arteko konparaketak (ikus 5.4 taula) egin dira:

**ERREKURTZO POSIBLEAK:** TSV, MySQL Datu-basea, *Pickle* liburutegia eta JSON.

BALIABIDEA	ZER DA?	ABANTAILAK	DESABANTAILAK
TSV	TXT fitxategi tabulatua.	- Sinplea. - Irakurgarritasuna. - Excel-en erabilgarri	-
MySQL DATU BASEA	Zerikusia duten datuen bilduma, ondoren eskuratu ahal izateko.	- Informazioa egituratzeko aproposa.	- Inplementazio konplexua. - Mantenimendu jarraitua.
PICKLE LIBURUTEGIA	Python-entzako objektu serializatzailea.	- Python-entzako aproposa. - Erabilera sinplea. - Beste programetan erabilgarria.	- Motela - Ez ikusgarria (kode bitarra)
JSON	Testu hutsezko formatua datu egitura sinpleak eta array asoziatiboak	- Atzitzeko azkarra. - Lengoaiei independentea.	-

errepresentatzeko  
erabiltzen da.

Taula 6. 3: baliabideen sarrera txikia.

Baliabidetan sakonduz:

**TSV (Support.google.com., 2016):**

Fitxategi hauek (ingelesez, *Tab Separated Values*) dokumentu mota batzuk dira non datuak errepresentatzen diren taulen egiturekin. Zutabeak tabulazioen (<tab>) bidez banatzen dira eta lerroak, aldiz, lerro jauzien bidez (\n). Beraz, TSV formatua hurrengo erregelak jarraitzen ditu:

- Sarrera bakoitzak lerro bakarra dauka.
- Lehengo lerroa goiburua da non eremu bakoitzaren balioa definitzen den.
- Eremuak tabulazioekin banatzen dira.
- Eremuek datuak eduki behar dute (zifra edo testua).
- Lerro guztiek eremu kopuru berdina eduki behar duzte.

Hau da, hurrengo hau idatziko balitz:

```
Izenburua <tab>Egilea<tab>baldintza  
Pride and Prejudice<tab>JaneAusten<tab>used  
The Art of War<tab>Sun Tzu<tab>used
```

Testu-kutxa 6. 12: TSV fitxategia sortzerakoan duen itxura.

Hau ikusiko zen testu editore batean:

<b>Title</b>	<b>Author</b>	<b>Baldintza</b>
Pride and Prejudice	Jane Austen	used
The Art of War	Sun Tzu	used

Testu-kutxa 6. 13: TSV fitxategia sortu ondorengo itxura.

Beraz, ikusten denez ulertzeko oso erraza izango zen eta begi bistara oso garbia da.

**MySQL DATU-BASEA:**

Hainbat datu base mota egon arren, MySQL datu-basea baliabide posibletzat erabaki da aukeratzea graduan gehien joratu izan den datu-basea

izan delako eta Python-entzako baliagarri dagoelako. Horretarako, programetan 5.14 testu kutzako kodea idatzi beharko da instalatzeko.

```
import MySQLdb.
```

*Testu-kutxa 6. 14: Pythonen MySQL erabiltzeko inportatu behar den paketea.*

Behin hau eginda, konexioa ezarri eta jadanik kontsultak egin ahal izango dira `execute()` aginduaren bitartez (6.15 testu-kutzaren hirugarren agindua `cursor.execute("SELECT VERSION()")`).

```
#!/usr/bin/python
import MySQLdb

# Datu-base konexioa ireki
db =
MySQLdb.connect("localhost","testuser","test123","TESTDB" )
# Kurtsore objetua prestatu cursor() metodoa erabiliz.
cursor = db.cursor()
# SQL querya exekutatu.
cursor.execute("SELECT VERSION()")
# Zerbitzariatik deskonektatu
db.close()
```

*Testu-kutxa 6. 15: MySQL datu basearekin konexioa egiteko eman behar diren urratsak.*

Ondoren, taulak sortu, tuplak gehitu etab. egin beharko ziren (kasu honetan deskribapenezako tupla asko egongo ziren).

### **PICKLE LIBURUTEGIA (Pyspanishdoc.sourceforge.net., 2016):**

Algoritmo erraza inplementatu eta objektuak serializatzen ditu. Hau da, objektuak *byte* kate batean bihurtzen ditu (eta alderantziz). Beraz, objektu konplexuak *byte*-tara bihurtzeko (*pickleatzea* deitzen zaiona) `dump()` aginduaren bitartez (testu fitxategian gehitu ditzakegu objektuak).

`x` objektua eta `f` fitxategia edukita `dump()` egingo dugu *pickleatze*ko:

```
pickle.dump(x, f)
```

*Testu-kutxa 6. 16.: x objektua f fitxategian gehitu.*

Kodea *despickleatze*ko, aldiz, hurrengo agindua erabiliko dugu:

```
x = pickle.load(f)
```

*Testu-kutxa 6. 17: f fitxategia x objektuan kargatu.*

Beraz, ikusten den moduan erabiltzeko erraza da.

### **JSON:**

- Datuen elkartruckerako formatu arina da (Json.org, 2016) Testu hutsezko formatu hau datu egitura sinpleak eta *array* asoziatiboak errepresentatzeko erabiltzen da. JSON fitxategiak *.json*-en bidez adieraziko ditugu.

JSON-ak bitan egituratuta daude:

- Hiztegieta non izen/balio bikoteko zerrendak dauden. Hiztegiak giltzen bidez (“{” eta ”}”) identifikatzen dira eta kideez osatuta egongo dira. Kide bakoitzak izen errepikaezin bat edukiko du eta “:” izango du jarraian, ondoren balio batekin izendatzeko. Bikoteak “,” bidez bananduko dira.
- *Array*-etan non balio ordenatuen listak diren. Hauek kortxeteen bidez (“[” eta ”]”) identifikatzen dira eta hauen barruan hainbat elementu egongo dira.

JSON-en egitura:

```
hiztegia
  {}
  { kideak }
kideak
  bikote
  bikote, kideak
bikote
  string : balio
array
  []
  [ elementuak ]
elementuak
  balio
  balio, elementuak
balio
  string = "" edo "karakterreak"
  number = -2, -1.333, 0, 1, 2, 3.5, 3.99, ...
  objektua
  array
  true
  false
  null
```

Testu-kutxa 6. 18: JSON-en egitura.

Pickle liburutegiarekin bezala, `load()` (`.json` fitxategian dagoena Python objektu batean bihurtuko du) eta `dump()` (Python objektua JSON objektu batean bihurtu, `.json` fitxategian gordetzeko alegia) funtzioen bidez baliatuko gara JSON-ak sortzeko.

### 6.3.1 Baliabidearen aukeraketa

Behin errekurtsiak azalduta, taula bat sortuko dugu (6.4 taula) produktura hobeto moldatzen den datu basea aukeratuz:

ERREKURTSIAK	IRABAZLEA	ARRAZOIA
DB vs Pickle	DB	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Pickle</i>-k berezko formatua duenez, ez da erabilgarria beste tresnerako, beraz, irakurketak eta idazketak soilik egin ahal izango dira (ezingo da ikusi).</li> <li>- DB-ak formatu estandarra dutenez datuak manipulatzeko errazago izango da.</li> </ul>
DB vs JSON	JSON	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kasu honetan, JSON egokiagoa izango da, erabiltzen ditugun datuak jadanik testua JSON moduan ditugulako eta eremuak ez direlako eraldatuak izango.</li> <li>- Objektuen eremuak maiz aldatu, kendu edo gehitu behar izango balira, MySQL egokiena izango litzateke (Programmers.stackexchange.com, 2016).</li> </ul>
TSV vs JSON	JSON	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Deskribapenak JSON fitxategi batera moldatu daitezkeenez JSON erabiltzea erabaki dugu TSV-a ordez.</li> </ul>
Pickle vs JSON	JSON	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Pickle</i> liburutegia baztertuta geratzen da aurreko arrazoiarengatik.</li> <li>- JSONek formatu estandarra dutenez (DBak bezala) datuak manipulatzeko errazago izango da.</li> <li>- JSON 25 alditan azkarrago da irakurketak egiterakoan (<code>load</code>) eta 15-etan idazterakoan (<code>dump</code>) (Kovshenin, 2010).</li> </ul>
DB vs TSV	DB	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MySQL-en bidez TSV edo CSV fitxategiak sortu daitezke MySQL taulan bidez.</li> </ul>

Taula 6. 4: balibideen aukeraketa.

Beraz, 6.4 taulan ikusten den bezala, produktuarentzako JSON datu-basea aukerarik hoberena izango litzateke.

### 6.3.1.1 JavaScript Object Notation

Baliabide hau erabilia nahiko aldaketa gutxi egin behar izan dira Stanford zerbitzarian. `load()` eta `dump()` funtzioen bidez baliatuko gara `.json` fitxategia betetzeko datuak kargatzen diren heinean. Stanford analizatzaileak JSON formatuan bueltatzen ditu terminoen analisiak eta honengatik JSON datu-basea aukeratu da (lana erraztuz). Python-ek eskaintzen duen `open()` funtzioaren bitartez fitxategian idatzi ahal izango dugu JSON formatuan.

Beraz, hurrengo hau egingo dugu: `TermMed` zerbitzarian lehenengo aldiz martxan jartzerakoan informazio lexikoa duen fitxategia sortuko du, fitxategi hau hutsa dagoelako (zerbitzari 29 orduz martxan eduki behar da hau betetzeko, ikusi 6.10 testu-kutxa). Hurrengo aldietarako hau ez dugu berriro egin behar fitxategi lexikoa deskribapenez beteta dagoelako eta beraz, `TermMed` zerbitzariak martxan segituan jarriko dira. Fitxategietan deskribapen guztien analisi linguistiko osoa agertuko da.

#### JSON fitxategia sortzen:

Baliabideen direktorioan hainbat fitxategi izango ditugu. Bost fitxategi sortuko ditugu (non bi fitxategi `analisiak_en.json` eta `analisiak_eu.json` kopiak izango diren):

- `proba.json` -> 10000 deskribapen izango ditu sorkuntzarekin probak egiteko. JSON hau betetzeko 36 minutu behar izango ditu gutxi gora behera eta ingeleseko bertsiorako sortuta izango da. Standord analizatzailea erabili da hau sortzeko.
- `analisiak_en.json` -> ingelesez dauden deskribapen guztiak hemen azalduko dira.
- `analisiak_eu.json` -> euskaraz dauden deskribapen guztiak hemen azalduko dira.
- `analisiak_en_kopia.json` -> `analisiak_en.json`-aren kopia.

- `analisiak_eu_kopia.json` -> `analisiak_eu.json`-aren kopia.

Lehenengo hiru fitxategi hauek (beste biak kopia hutsak dira) “{}” karakterea izango dute beraien barnean, hasiera batean deskribapenak lista batean sartuko direla adierazteko (ikusi 6.23 testu-kutxa). Ikusi 6.19 testu-kutxa.

Hau egin ondoren `corenlp.py` eta `klaseak.py` fitxategietan aldaketak egingo dira (euskarako bertsioan aldaketa berdinak egin behar dira `wrapper_eustagger.py` eta `klaseak_eu.py` fitxategietan):

Informazio lexikoa izango duen fitxategiaren *path*-a idatziko dugu `ANALYSIS_DIR` aldagai globalean:

```
ANALYSIS_DIR =
os.environ.get("ANALYSIS", "/sc01a4/users/aelorz003/KBP/bali
abideak")
```

*Testu-kutxa 6. 19: ANALYSIS\_DIR aldagai globalaren sorketa.*

Behin hau eginda, bi aldagai berri sortuko ditugu non lehengoan informazio lexikoa fitxategiaren *path* guztia agertuko den, adierazteko non dagoen erabiliko dugun fitxategia (kasu honetan `analisiak_en.json` izango da). Bigarren aldagaian, aldiz, jadanik sortuak izan diren deskribapen guztiak sartuko ditugu. Honen izena `self.pre_loaded_analysis_dict` izango da (6.20 testu-kutxa).

```
def __init__(self, corenlp_path=DIRECTORY, memory="3g",
properties='default.properties', serving = False,
analysis_path=ANALYSIS_DIR) :

    #json fitxategia kargatu
    self.pre_analysis = analysis_path +
"/analisiak_en.json"
    #analisiak_eu.json dagoen berreskuratu
    with open(self.pre_analysis, encoding = 'utf-8') as f:
        self.pre_loaded_analysis_dict = json.load(f)
```

*Testu-kutxa 6. 20: JSON fitxategiaren kargateka self.pre\_loaded\_analysis\_dict aldagaiaren (beltzez, aurretik aipatutako aldagaiak)*

`parse()` funtzioa 512724 alditan deitua izango da (deskribapen kopurua) eta `self.pre_loded_analysis_dict` hiztegiaren `results` balioa (*stanford*-ek egindako analisia) eta `to_send` gakoa (deskribapenaren izena) gordeko dira hurrenag formatuarekin `{ 'to_send' : 'results' }`.

`open()` ('w' letra gehituz, fitxategian idatzi ahal izango dugu) funtzioa eta `self.pre_analysis`-ren bitartez `self.pre_loaded_analysis_dict` dauden deskribapen guztiak fitxategian idatziko ditugu.

Fitxategian deskribapenak 20.000-naka idatziko dira segurtasun maila bat ezarriz (dena batera ez egiteko, argia joaten bada lan guztia ez galtzeko, ...). Ikusi 6.21 testu-kutxa:

```
def _parse(self, text):
    ...
    self.pre_loaded_analysis_dict[to_send] = results

    #20000naka pre_loaded_analysis_dict-en daogena idatzi
    fitxategian
    if len(self.pre_loaded_analysis_dict) % 20000 == 0 or
    len(self.pre_loaded_analysis_dict) == 498613:
        self.storeAnalysis()
    return results

#JSON fitxategian idatzi
def storeAnalysis(self):
    ...
    with open(self.pre_analysis, "w", encoding = 'utf-
8') as f:
        json.dump(self.pre_loaded_analysis_dict, f)
```

Testu-kutxa 6. 21: 20.000 deskribapenero fitxategian idatzi.

Aurretik esan den bezala, `dump()` funtzioaren bitartez `self.pre_loaded_analysis_dict` dagoena `f` aldagaian idatziko dugu JSON objektua bihurtuz (`results` aldagaian *string* moduan aurkitzen baitzen).

`klaseak.py` fitxategiaren bitartez, lortuko da jakitea ea terminoa JSON-ean dagoen edo ez dagoen ikustea. Terminoa oraindik ez bada terminoen informazio lexikoa duen fitxategian aurkitzen (`if` baldintzaren arabera) *Stanford*-eko zerbitzariak (`corenlp.py` fitxategia) terminoa *parse*atuko du eta fitxategian gehituko da (6.22 testu-kutxan beltzez agertzen den kode zatia). Hau eginez, deskribapenen karga segituan egingo da (bi minutuko inguruko denboran).



```

self.pre_analysis =
"/sc01a4/users/aelorz003/KBP/baliabideak/analisiak_en_proba
.json"
with open(self.pre_analysis, encoding = 'utf-8') as f:
    self.pre_loaded_analisys_dict = json.load(f)
...

#begiratu ea terminoa jadanik JSON fitxategian dagoen
if d.term in self.pre_loaded_analisys_dict:
    result =
self.pre_loaded_analisys_dict[d.term]
else:
    nlp = StanfordNLP()
    result = nlp.parse(d.term)

```

Testu-kutxa 6. 22: konprobatu ea d.term terminoa fitxategian dagoen.

Ikusi 6.23 testu-kutxako terminoen informazio lexikoa duen .json fitxategia hartuko duen itxura (beltzez terminoa eta etzanez terminoaren informazio linguistikoa).

```

{"Lack of ossification of scapula": {"sentences": [{"text": "Lack
of ossification of scapula", "words": [{"Lack", {"PartOfSpeech":
"NN", "NamedEntityType": "O", "CharacterOffsetBegin": "0", "Lemma":
"lack", "CharacterOffsetEnd": "4"}], [{"of", {"PartOfSpeech": "IN",
"NamedEntityType": "O", "CharacterOffsetBegin": "5", "Lemma": "of",
"CharacterOffsetEnd": "7"}], [{"ossification", {"PartOfSpeech":
"NN", "NamedEntityType": "O", "CharacterOffsetBegin": "8", "Lemma":
"ossification", "CharacterOffsetEnd": "20"}], [{"of",
{"PartOfSpeech": "IN", "NamedEntityType": "O",
"CharacterOffsetBegin": "21", "Lemma": "of", "CharacterOffsetEnd":
"23"}], [{"scapula", {"PartOfSpeech": "NN", "NamedEntityType": "O",
"CharacterOffsetBegin": "24", "Lemma": "scapula",
"CharacterOffsetEnd": "31"}]]], "dependencies": [], "parsetree": [],
"indexeddependencies": []}}, {"32 French gauge": {"sentences":
[{"text": "32 French gauge", "words": [{"32", {"NamedEntityType":
"NUMBER", "NormalizedNamedEntityType": "32.0", "CharacterOffsetEnd":
"2", "PartOfSpeech": "CD", "CharacterOffsetBegin": "0", "Lemma":
"32"}], [{"French", {"PartOfSpeech": "JJ", "NamedEntityType": "MISC",
"CharacterOffsetBegin": "3", "Lemma": "french",
"CharacterOffsetEnd": "9"}], [{"gauge", {"PartOfSpeech": "NN",
"NamedEntityType": "O", "CharacterOffsetBegin": "10", "Lemma":
"gauge", "CharacterOffsetEnd": "15"}]]], "dependencies": [],
"parsetree": [], "indexeddependencies": []}}

```

Testu-kutxa 6. 23: informazio lexikoa duen fitxategiaren zati bat.


## dump()

Ikusi 6.5 eta 6.6 tauletan `dump()` aginduak fitxategian idazketak egiteko behar duen denbora (segundoetan). Denbora kopurua lortzeko `time()` paketea inportatu behar da beltzez agertzen den 6.24 testu-kutxako kodea idatziz).

```
def storeAnalysis(self):  
  
    #lortu hasierako ordua (momentu horretakoa)  
    start_time = time.time()  
    #fitxategian idatzi  
    with open(self.pre_analysis,"w", encoding = 'utf-8') as f:  
        json.dump(self.pre_loaded_analysis_dict,f)  
  
    #kenketa egin momentuko orduarekin eta aurretik lortu den  
    ordua (start_time)  
    print("Idazketa egiteko denbora:", time.time() - start_time)
```

Testu-kutxa 6. 24: idazketak egiteko behar den denbora lortu.

Bukaeran lortu izan den grafikoa MedTerm\_en sisteman (6.1 grafikoa).



Grafiko 6. 1: `dump()` aginduak `analisiak_en.json` fitxategian idazteko behar duen denbora.

Beste era batera erakusteko, ikusi 6.5 taula.

Desk. kop	Denbora (seg)	Desk. kop.	Denbora (seg)	Desk. kop	Denbora (seg)
0	0	220000	30,19	330000	48,38
50000	6,6	250000	36,23	470000	65,38


100000	12.58	280000	41,01	498613	70,61
--------	-------	--------	-------	--------	-------

Taula 6. 5: dump() aginduak analisiak\_en.json fitxategian idazteko behar duen denbora.

Beraz, dump() gutxi egin behar dira JSON-aren sorkuntza denbora gehiago ez inbertitzeko (29 ordu behar dira JSON-aren sorkuntza egiteko). 20.000 deskribapenera (gutxi gorabehera 72 minuturo) dump() egin da. Azkenean ez dira fitxategian honetan espero ziren termino guztiak gehituak izan (512.724), baizik eta 498.613. Gehituak izan ez direnak RF1 fitxategian errepikatuak zeudenak izan dira.

MedTerm\_eu sistemako analisiak\_eu.json fitxategian 196.229 deskribapen gehitu dira, RF1 fitxategian (.txt formatukoa) deskribapen asko errepikatuak zeudelako eta hauek ez dira gehituak izan. Hona hemen idazketak egiteko behar izan den denbora. Fitxategi hau sortu ondoren, deskribapen guztiak kargatzeko 57 segundo inguru behar izan dira:

dump() aginduak idazketak egiteko behar duen denbora euskarako bertsioan 6.6 taulan eta 6.1 grafikoan aurkitzen dira.



Grafiko 6. 2: dump() aginduak analisiak\_eu.json fitxategian idazteko behar duen denbora.

Desk. kop	Denbora (seg)	Desk. kop	Denbora (seg)	Desk. kop	Denbora (seg)
0	0	92000	10.91	185000	19.54
37000	4.31	110000	13.09	194000	21.16
50000	5.67	155000	17.12	196229	20.82

Taula 6. 6: dump() aginduak analisiak\_eu.json fitxategian idazteko behar duen denbora.

Beraz, fitxategi hauen sorkuntzaren ondorioz bi sistemak azkarrago kargatuko dira eta errepikatuak zeuden deskribapenak deuseztatuak izango dira.

### TERMINO ANBIGUOAK:

Euskaraz eta ingeleseko informazio lexikoa gordetzen diren fitxategien termino kopurua txikiagoa da bi RF1 fitxategiekin konparatuz. Honen azalpena erraza da: RF1 fitxategietan hainbat termino errepikatzen dira, eta beraz, hauen informazio lexikoa ez da berriro gordetzen. Hainbat alditan errepikatuak egon arren termino hauek dituzten SNOMED ID-ak (`sctId`) desberdinak dira, beraz, termino hauek anbiguoak direla (esanahi bat baino gehiago) esaten da. Hau da, “#” karakterea ikusten bada terminoaren analisia egiterakoan, termino honek anbiguo delako esanahi du. Adibidez:

```
Alergia-en SNOMED IDak: 609328004#408439002, beraz, RF1 fitxategian alergia terminoa bitan agertuko da.
```


*Testu-kutxa 6. 25: alergia termino anbigua.*

Ingeleseko bertsioan hiru moldaketa hauek (objektuen sorketa, terminoen bilaketak egitea lehen araberako egitea eta datu-basearen sorketa, hau da, 6.1, 6.2 eta 6.3 azpiatalak) egin ondoren euskarazko bertsioa implementatzen hasiko gara. Horretarako, `eustagger-lite` erremintaz (4.3.2 azpiatala) baliatuko gara eta bueltatzen duen emaitzaren itxura aldatu beharko dugu `wrapper`-aren (ikusi 6.1 irudia) sorkuntzarekin.

## 6.4 Wrapper-ra

Aurretik esan den bezala (4.3 testu-kutxa) NAF fitxategia sortzeko, analizatuko den deskribapena `.txt` batean egon beharko da. Beraz, arazorik ez sortzeko, deskribapenak kargatzen diren bakoitzean aldi baterako `.txt` fitxategi batean idatziko dira (bi erabiltzaile aldi berean erabiltzen badute sisteman arazorik ez sortzeko) eta hemendik `eustagger-lite`-ri deituko zaio NAF fitxategia sortzeko (ikusi 6.1 irudia).

`Wrapper` hau sortu da, `Med_en` sisteman terminoen informazio lexikoa JSON elementuetan gordetzen direlako. Beraz, JSON elementu hauek erabiliko dira `Med_eu` sisteman aldaketa gutxi egiteko.



*Irudia 6. 1: Wrapper-aren itxura.*

Beraz, aldi baterako fitxategia sortzeko (Hellmann, 2016) ikusi F eranskinetako F.1 testu-kutxako `terminoTemp()` funtzioa.

Aldi baterako fitxategia sortua izan dela, `import xml.etree.ElementTree as ET` erabiliko dugu NAF-etik (ikusi 4.3.2.1 azpiatala) lema, etab. lortzeko eta JSON itxura emateko deskribapenari (F.2 testu kutxako funtzioko 9. lerroa).

Hau da, `naf2json` funtzioaren bitartez (F.3 testu-kutxa) XML batetik (NAF) JSON bat sortuko dugu. Gainera, funtzio errekursibo bat sortua izan da case `array`-tik laburtzapean guztiak lortzeko modu eraginkor batean (laburtzapeanak funtzioa, F.4 testu-kutxan aurkitzen dena).

`tokenEtiketak()` deitzen den funtzioan (6.26 testu-kutxa) etiketa bakoitzari dagokion multzoa ezarriko zaio (kodearen zati bat erakutsiko da funtzioa oso luzea baita):

```
def tokenEtiketak(self, laburdura):
    ...
    etiketa = []
    #Puntuazio markak
    if 'PUNT' in laburdura:
        etiketa.insert(0, 'PUNT')
        etiketa.insert(1, laburdura)
    #Ortografia
    elif laburdura == 'HAS_MAI' or laburdura == 'DEN_MAI':
        etiketa.insert(0, 'ORT')
        etiketa.insert(1, laburdura)
    ...
    return etiketa
```

*Testu-kutxa 6. 26: etiketa bakoitzari bere multzoa esleitu.*

Beraz, hau guztia egin ondoren `Eustagger_lite` bueltatzen duen informazio guztia JSON moduan lortuko genuke. *Wrapper*-aren emaitza, 6.27 testu-kutxan ikusten duguna izango litzateke.

```
{'sentences': [[['brakizefalia', {'CharacterOffsetEnd':  
'11', 'MUG': 'MUGM', 'NamedEntityTag': 'O', 'NUM': 'NUMS',  
'POS': 'IZE', 'CharacterOffsetBegin': '0',  
'funtzioSintaktikoak': ['@OBJ', '@PRED', '@SUBJ'],  
'Lemma': 'brakizefalia', 'CASE': 'ABS', 'SubPOS': 'ARR'}]]]}
```

*Testu-kutxa 6. 27: : jsonFinala aldagaia bueltatuko duena (ikusi Feranskina)*

Behin hau eginda `TermMed_eu` zerbitzaria eta `AnaMed_eu` bezeroaren sorketarekin ekingo diogu *wrapper*-rak sortzen dituen JSON terminoetatik informazio gehigarria gehitzeko (hierarkia, SNOMED identifikatzailea, ...).

## 6.5 Med\_eu-en sorkuntza

Aurretik esan dugun bezala, `Med_eu` sistema sortzeko `Med_en`-en sistema hartu eta hainbat aldaketak egin behar izan dira. Bi fitxategietan aldaketak egin behar izan dira: `TermMed_eu` zerbitzarian (`ts_eu.py`) eta `AnaMed_eu` bezeroan (`analizatzailea_eu.py`).

### 6.5.1 TermMed\_eu:

Hemen soilik, deskribapenak, erlazioak eta kontzeptuak euskaraz izan behar direnez beste fitxategien izenak atzitu behar izango ditugu. Portuaren zenbakia aldatu behar izango dugu (kasu honetan, portua 9608 izango da) arazorik ez egoteko (6.28 testu-kutxatik beltzez agertzen den kode zatia izango ziren fitxategi honetako moldaketak).

```

def __init__(self, inp):
    m = re.match('.*\/SnomedCT_RF([12])Release_([^\_]*)([^\/]*)\/', inp)
    if m:
        fileType = "sct"+m.group(1) #
        namespace = m.group(2) #eu izango da
        version = m.group(3) #20150731 izango da
    else:
        print('fitxategiaren izena ez da ezagutu')
        exit()
    fitxC = inp+fileType+' _Concepts_Core_' +namespace+'_'+version+'.txt'
    fitxD = inp+fileType+' _Descriptions_' +namespace+'_'+version+'.txt'
    fitxR = inp+fileType+' _Relationships_Core_' +namespace+'_'+version+'.txt'
    ...

def main():
    """
    The code below starts an JSONRPC server
    """
    parser = optparse.OptionParser(usage="%prog [OPTIONS] ")
    parser.add_option('-p', '--port', default='9608',
                    help='Port to serve on (default 9608)')
    ...
    inp =
'/sc01a4/users/aelorz003/KBP/baliabideak/SnomedCT_RF1Release_eus_20150731/'
    des = HierarkiakKargatu(inp)
    ...

```

Testu-kutxa 6. 28: ts\_eu.pyfitxategia.

Behin hau eginda, AnaMed\_eu erremintan moldaketekin hasiko gara, eponimoen era egokian tratatzen.

### 6.5.2 AnaMed\_eu:

Fitxategi honen aldaketa nagusia eponimoak modu egoki batean identifikatzea izan da (Downen sindromea terminoan ez zuen Down eponimotzat identifikatzen, adibidez). Horretarako, eponimoakIdentifikatu() funtzioan eponimoak.txt fitxategitik eponimo guztiak lortuko dira. Erabiltzaileak idatzi duen hitza fitxategian aurkitzen bada, lema moldatuko dugu eponimoaren izenera. Beti eponimo luzeena lortuko dugu (ikusi 6.29 testu-kutxa):

```

Eponimoak.txt -> Down, Barré, Park, Pariknson, ...
Parkinsonen gaixotasuna -> Park      Parkinsonen gaixotasuna -> Parkinson
parkinson bueltatuko du lematzat bien artean luzeena delako

```

Testu-kutxa 6. 29: eponimo luzeenaren lorketa.

Eponimo luzeenaren kontrola egiteko izateko 6.30 testu-kutxa ikusi:

```
#izen bereziak identifikatzeko. EPONIMOAK = Down, Hopkins,...
def eponimoakIdentifikatu(tagged):
    ...
    lagLemmaEponimo = "
    for i in range(len(eponimo)):
        #park eta parkinson bezalako bereizketak egiteko
        #(formarekin konparatu). len() erabiliko da eponimo
        #luzeena .txt fitxategitik lortzeko.
        if len(lagLemmaEponimo) < len(eponimo[i].lower())
and eponimo[i].lower() in forma.lower() and forma.lower()[0:
len(eponimo[i])] == eponimo[i].lower():
    info["Lemma"] = eponimo[i].lower()
    info["NamedEntityTag"]='EPONYM'
    lagLemmaEponimo = info["Lemma"]
    aurkituta = True
    ...
```

*Testu-kutxa 6. 30: euskaraz eponimoak egoki tratatzeko kodea.*

Euskarazko bertsioan, zerbitzari bakarra erabiltzen dugunez, wrapper\_eustagger.py-ko Wrapper paketea inportatu beharko dugu. Horretarako, hurrengo hau idatzi beharko dugu soilik terminoen analisiak egiteko 6. 31 testu-kutxako analizatu() funtzioan:

```
from wrapper.wrapper_eustagger import Wrapper
...
def
analizatu(term, luzeenaBool=False, multzokatu=False, abstrakzi
oak=False):
    ...
    wr = Wrapper()
    result = wr.parse(term)
    ...
```

*Testu-kutxa 6. 31: sortutako Wrappera pakete bezala inportatu.*

result aldagaiak 6. 26 testu-kutxako informazioa bueltatuko digu. result aldagaiko sentences barruan dagoen informazio guztia nahi dugunez 6.23 testu-kutxako kodea idatziko dugu:

```
eponimoekin = eponimoakIdentifikatu(result["sentences"])
```

Hau

*Testu-kutxa 6. 32: json informazioa lortu.*

eginez, analizatzaileak 7.1 azpiataleko dagoen informazioa bueltatuko digu.



Behin hau guztia eginda, OsatEUS-en interfazea moldatzen hasiko gara erabiltzaileak sartzen duen testutik termino guztiak detektatzeko.

## 6.6 Django interfazea

Hona hemen osasunTxostenak *framework*<sup>6</sup>-ak bukaeran hartuko duen itxura (azpimarratuak izan diren fitxategiak ikasleak sortu ditu eta beltzez daudenak moldatuak izan dira):

```
osasunTxostenak
  db.sqlite3
  manage.py
  templates
    admin
      base_site.html
  txantiloiak
    init.py
    admin.py
    forma.py
    models.py
    urls.py
    views.py
    analizatzailea eu.py
    wrapper eustagger.py
    sct4text.py
    migrations
      init.py
      0001_initial.py
      ...
    static
      templatetags
        __init__.py
        txantiloiak_extras.py
      txantiloiak
        styles.css
    templates
      registration
        login.html
        login_zah.html
      txantiloiak
        espezialitatea.html
        index.html
        laburpena.html
        proba.html
      templatetags
        __init__.py
        txantiloiak_extras.py
  txostenak
    __init__.py
    settings.py
    urls.py
    wsgi.py
```

Testu-kutxa 6. 33: Django framework-a bukaeran izango duen itxura.

---

<sup>6</sup> egitura bat da, non softwareko beste proiektu bat garatu daitekeen.

6.2 irudian ikusten dena hasiera batean genuen interfazea da.

## Digestio-aparatua

<input checked="" type="checkbox"/> <b>OSPITALERATZEKO ARRAZOIA</b> <input type="text" value="as"/>
<input checked="" type="checkbox"/> <b>AURREKARIAK</b> <input type="text" value="Ez du alergiairik. Ez du ohiko tratamendurik."/>
<input checked="" type="checkbox"/> <b>EGUNGO HISTORIA</b> <input type="text"/>
<input checked="" type="checkbox"/> <b>AZTERKETA FISIKOA</b> <input type="text"/> <input type="checkbox"/> <b>Burua eta lepoa.</b> <input type="checkbox"/> <b>Biriken auskultazioa.</b> <input type="checkbox"/> <b>Sabela.</b> <input type="checkbox"/> <b>Gorputz-adarrak.</b> <input type="checkbox"/> <b>Ondeste-ukipena.</b>
<input checked="" type="checkbox"/> <b>PROBA OSAGARRIEN LABURPENA</b> <input type="text"/>

*Irudia 6. 2: Digestio-apatuaren interfazea hasieran*

Eta bukaeran lortuko dena (6.3 irudia).

The screenshot shows a web interface for 'Barne medikuntza' (Internal Medicine). It features a text area with the title 'OSPITALERATZEKO ARRAZOIA' containing a paragraph of text. Several words in the text are highlighted in yellow, and a legend on the right explains these highlights: 'Lotuta dator, asaldatau' (highlighted in green), 'biguria-egokiarekin' (highlighted in purple), 'diskurso eragabea' (highlighted in blue), 'ozenki hitz egiten du eta aldamenekoak infatzen ditu gauero hitz egin eta ez dirizelako lorik egiten ezan' (highlighted in yellow), 'esaten du kamerak jarri eziziotela' (highlighted in purple), 'osatu zer egiten duen jakiteko' (highlighted in yellow), 'inbidia omen diote' (highlighted in purple), 'bizia luzatzeko substantzia bat asmatu duelako eta lapurtu nahi diotela' (highlighted in yellow), 'Hizkera ez da batere antolatua' (highlighted in purple), 'Mesjefati dago eta ez du batere laguntzen' (highlighted in yellow), and 'Oso argal dago' (highlighted in purple). Below the text area is a red bar with the title 'AURREKARIAK' and a sub-header 'asaldatau'. A list of SNOMED terms follows, with the last one selected:

- 286582007 - Ecstatic (finding)
- 3646006 - Lamellipodium (cell structure)
- 39869006 - Alarm, device (physical object)
- 9251003 - Jumping (observable entity)
- 258141001 - Lifting (observable entity)
- 260379002 - Impaired (qualifier value)
- 18307000 - Altered (qualifier value)

Irudia 6. 3: Barne-medikuntzaren interfazea bukaeran.

OsatEUS aplikazioan egin diren aldaketa nagusiak hurrengo hauek dira: osasun-txostenak sortzeko formulario batetik, erabiltzaileak formulario horretan sartzen dituen testuaren terminoen detektatzea eta hauen informazioaren (SNOMED identifikatzailea eta dagokion FSN-ak) erakusketara pasa da. Hau guztia lortzeko, 4.5.2 azpiataleko (ikusitako azpiatal honen taulakhobeto ulertzeko) teknologia erabili da. Hainbat aldaketak egin ditugu proiektuan helburu hau lortzeko.

### Formularioa moldatzen:

Formularioaren posizioa moldatzea izango da egingo den lehenengo urratsa, hemen idazten den testua ondoren beste toki batean ikusteko (hau da, termino detektatzean lehenengo urratsa interfaze honen elementuen posizioak moldatzea izango zen).

Horretarako, `espezialitate.html` fitxategiko HTML kode hau gehitua izan da (6.34 testu kutxako beltzez agertzen den kodea). Testu-kutxetan (6.34 testu-kutxako `<textarea>` etiketak) idazten den testua beste toki batean agertuko da kurtsorea testu-kutxatik kentzerakoan (`onblur()` gertaera erabiliz hau lortuko dugu). Testu berria, sortu berri diren kutxatan agertuko da (6.38 testu-kutxako `<div>` etiketa). Hau lortzeko, id atributuak

beharko ditugu (4.5.2 azpiatala) adierazteko zein kutxetan nahi dugun testua agertzea.

```
{% for atal in espezialitatea.atala_set.all %}
  <div id=emaitzaDiv{{atal.id}} class="emaitza">
    <span id="emaitza{{ atal.id }}"></span>
  </div>
  <div class="atal">
    ...
    <textarea form="txostena" onblur =
"terminoakLortu('{{ atal.id }}')" id="testu{{ atal.id }}"
name="testu{{ atal.id }}"> {{atal.testua}}</textarea>
    ...
  </div><!--atal-->
{% endfor %}
```

*Testu-kutxa 6. 34: espezialitatea.html moldatu/gehitutako kodea (beltzez).*

Sortu berri izan diren kutxak (<div> etiketa dutenak) interfazearen eskuinaldean ezarri dira CSS erabilita. Horretarako, bi klase berri sortuak izan dira (class atributua) emaitza deiturikoa. Gainera, .atal klasetik atributu batzuk kendu ditugu jadanik beharrezkoak ez zirelako (tamaina eta posizioa aldatu denez, atributu batzuk (length bezalakoak) ez ziren beharrezkoak). Kutxan moldaketekin amaitzeko, tamaina jakin bat eman zaizkie sortu berri diren kutxari.

```

.emaitza{
    position: absolute;
    left: 53%;
    width: 45%;
    size:80%;
}


.emaitzaAzpi{
    position: absolute;
    left: 136%;
    width: 65%;
    size:80%;
}

.atal{
    position: relative;
    left: 2%;
    color:black;
    border-style: solid;
    border-width: 1px;
    size:80%;
    width: 48%;
    background-color:white;
}

```

Testu-kutxa 6. 35: espezialitatea.html-en egindako moldaketak CSS arloan.

Behin hau eginda, *JavaScript* kodea gehitu zaio `onblur()` atributuari testu-kutxetan idatzita dena kutxen barruan (`<div>` etiketa) agertzeko kurtsorea kentzerakoan. Kutxa hauek soilik ikusgarri egongo dira testua agertu behar denean (ikusi 6.4 Irudia).



Irudia 6. 4: erabiltzaileak idatzitako testua lortzeko irudi grafikoak.

Beraz, behin-behineko `jsonLortu()` funtzioa sortu dugu (6.37 testu-kutxa) testu-kutxetan dagoen testua lortzeko eta sortu berri diren kutxetan agertzeko.

```

//textarean idatzitako testua lortu kurtsorea kentzerakoan
function jsonLortu(ida) {
    var testuID = "testu".concat(ida);
    var emaitzaID = "emaitza".concat(ida);
    //textareako testua lortu
    var x = document.getElementById(testuID).value;
    var arraya = x.split(" ");
    //analizatzailea_eu.py-ri textareako testua bidali
    analizatzeko
        hitzakDetektatu(x, emaitzaID);
}

```

Testu-kutxa 6. 37: jsonLortu behin-behineko funtzioa

```

//idatzitako testua ondoko div-ean agertuko da.
function hitzakDetektatu(x, emaitzaID){
    document.getElementById(emaitzaID).innerHTML = x;
}


```

Testu-kutxa 6. 36: hitzakDetektatu behin-behineko funtzioa.

Hau egin ondoren erabiltzaileak idazten duena, interfazearen eskuinaldean agertuko zaio.

### AnaMed\_eu-rekin konexioa:

Testu-kutxetatik (Textarea etiketa) sartzen den testua analizatzeko AnaMed\_eu-ren beharra izango dugu. Hau egin behar denez kurtsorea testu-kutxetik kentzen den bakoitzean, jsonLortu() deituriko *JavaScript* funtzioaren barnean AnaMed\_eu bezeroari deitu behar izango diogu. Hau egin ahal izateko link birtual bat sortu beharko dugu (6.5 irudia)



Irudia 6. 5: analizatzailea\_eu eta wrapper\_eustagger.py-ren link birtualaren irudikapena.

Behin hau eginda, `jsonLortu` funtzioa honela moldatu dugu (beltzez agertzen dena):

```
//textarean idatzitako testua lortu kurtsorea
kentzerakoan
function jsonLortu(ida) {
    var testuID = "testu".concat(ida);
    var emaitzaID = "emaitza".concat(ida);
    //textareako testua lortu
    var x = document.getElementById(testuID).value;
    var arraya = x.split(" ");
    //analizatzailea_eu.py-ri textareako testua bidali
    analizatzeko
    $.ajax({
        type: "GET",
        url: "berria/analiza/",
        data: { param: x},
        dataType: "text"
    }).done(function( jsonLortu ) {
        //jsonLortu string moduan bueltatu
        hitzakDetektatu(jsonLortu, x, emaitzaID);
    });
}
```

*Testu-kutxa 6. 38: AJAX-en erabilera terminoak detektatzeko.*

Hau da, AJAX teknologia erabili dugu (Docs.python-requests.org., 2016). AJAX-ek hurrengo `url`-a bilatuko du `x` parametroa esleituz. GET motakoa esan diogu izateko, deiak ondo jasotzen dituela ikusteko Django zerbitzarian. Deia modu arrakastatsuan bete bada, `hitzaDetektatu` funtziora joko du. `jsonLortu` aldagaia interfazeko testu-kutxaren testuko hitz guztien informazio lexikoa bueltatuko du (6.38 testu-kutxako 14. lerroa). Hau da, terminoak diren hitzak SNOMED CT-ko informazioa azalduko (aurretik aipatuak izan diren, hierarkia, `sctId`, ...) da aldagai honetan. `url`-a `urls.py` deituriko fitxategian bilatuko du.

`urls.py` fitxategian hurrengo bi patroiz gehitu dira (6.39 testu-kutxa).

```
from . import views

urlpatterns = [
    ...
    url(r'^([0-9]+)/aldata/berria/analiza/$',
        views.analizatzailea, name='analiza'),
    url(r'^([0-9]+)/berria/analiza/$',
        views.analizatzailea, name='analiza'),
    ...
]
```

*Testu-kutxa 6. 39: `urls.py` fitxategia gehitutako lerroa.*



Idatzi berri izan den bi lerro hauekin (6.39 testu-kutxa) hurrengo hau esanahi da: `views.py` (6.39 testu kutxa) fitxategian, `analizatzailea` den funtzioa deitzea. Hau da, `urls.py` fitxategia `.html`-ak diren eta `views.py` arteko bitartekari soil bat izango litzateke (ikusi 6. 40 testu-kutxa eta 6.6 irudia prozesua hobeto ulertzeko).

```
1.- espezializaioa.html /berria/analiza patroia deitu.
2.- urls.py /berria/analiza patroia bilatu.
3.- urls.py views.analitzzailea funtzioa deitu.
4,. Views.py analizatzailea funtzioa exekutatu.
```

*Testu-kutxa 6. 40: AJAXetik AnaMed\_eu deitzeko prozesua.*


Beraz, `anaMed_eu` fitxategia atzitu ahal izateko hurrengo hau idatzi dugu `views.py`-n (6.41 testu kutxa)

```
from subprocess import Popen, PIPE
import subprocess

def analizatzailea(request, param):
    //python3 analizatzailea_eu.py "dagokion testua"
    deitu.
    subprocesLortu = subprocess.Popen(['python3',
    '/sc01a4/users/aelorz003/KBP/osasunTxostenak/txantiloak/an
    alizatzailea_eu.py', request.GET['param']], stdout=PIPE,
    close_fds=True)
    analizatu = subprocesLortu.communicate()
    analizatu = analizatu[0].decode('utf-8')
    print (analizatu)
    return HttpResponse (analizatu)
```

*Testu-kutxa 6. 41: views.py fitxategia.*

Bukatzeko, esan beharra dago `request` aldagaia aldagai finko bat dela (Django erabiltzen diren funtzio guztietan ezarri behar den parametro bat da). Behin `AnaMed_eu` sistemak interfazeko testu-kutxaren analisia egin ondoren, lortutako emaitza `espezializazioa.html` fitxategira bidaliko dugu `HttpResponse ()` funtzioaren bitartez (6.46 testu-kutxa).



Irudia 6. 6: anaMed\_eu sistemaren erantzuna Django-n lortu

Hau guztia eginda, Anaterm\_eu erramintaren bitartez interfazeaz sartua izan den testu-kutxako testu guztia analizatua izango da terminoak zein diren identifikatuz. Beraz, orain detektatuak izan diren terminoen kolore etiketatzea egingo dugu.

### Terminoak koloreztatzen:

Terminoak hierarkien arabera sailkatzen dira (DISORDER, FINDING,...). Hemeretzi hierarkia mota desberdin ditugunez, sei hierarkia mota nagusiak aukeratuko ditugu honela eta bakoitzari kolore bat esleitu zaio:

Garrantzia	Hierarkia	Etiketa kolorea	HTMLetiketa
1	DISORDER	Gorrixka	#ff8080
2	FINDING	Berdea	#99ff99
3	PROCEDURE	Urdin argia	#00ffff
4	BODYSTRUCTURE	Arroxa	#e600ac
5	PHARMPRODUCT or SUBSTANCE	Laranja	#ffaa00
6	QUALIFIER	Horia	#ffff00
7	BESTEAK	Morea / urdin iluna	#b3b3e6

Taula 6. 7: hierarkiak eta hauen lehentasunak

Termino bat anbigua izan daiteke, hau da hierarkia bateko edo gehiagoko etiketa izan dezake (gure produktuak lortzen dituen termino anbiguoak azpimarratuak egongo dira). Termino hauen etiketa kolorea 6.7 taularen arabera esleituko dira (ikusi 6.42 testu-kutxa)

Adenokartzinoma-ren hierarkia: DISORDER#BODYSTRUCTURE

Testu-kutxa 6. 42: Adenokartzinoma-ren bi hierarkiak.

Beraz, adenokartzinoma-ren etiketa kolorea gorrixka izango da, DISORDER etiketak aurreko taulan BODYSTRUCTURE etiketak baino lehentasun handiago duelako. 6.43 testu-kutxako kodea gehitu diogu hitzakDetektatu() javascript funtzioari kolorezko etiketak esleitzeko terminoari. Funtzio hau gauza asko egiten dituen eta oso luzea denez, hainbat zatitan banatu dugu hobeto azaldu ahal izateko (ikusi 6.43 testu-kutxatik 6.49 testu-kutxara).

```
// '-k ordez " idatzi
var bitartekaria = testua.replace(/'/g, '"');
// String-a JSON bihurtu
var jsonTestua = JSON.parse(bitartekaria);
// termino guztiak dagokion kolorearekin azaldu
var testuaFinal = "";
var dauka = false;
```

Testu-kutxa 6. 43: String - JSON konbertsioa.

6. 43 testu-kutxan aurretik sortu den aldagaia (jsonLortu, alegia) string formatutik JSON formatura pasako dugu. Horretarako, string-ean aurkitzen ditugun kakotx bakun guztiak (‘’) kakotx bikoitzera bihurtuko ditugu ( ‘ ” ’). Javascript-en aldagai batek JSON motakoa izateko bakarrik kakotx bikoitzak onartzen ditu balioetan (beste lengoaietan ez bezala). Hona hemen eredu bat:


<pre>["Ospitaleratzean", <b>'PROCEDURE-0'</b>, 'ospitaleratze', <b>'sctId': '394656005'</b>, 'CASE': 'INE', 'ORT': 'HAS_MAI', 'MUG': 'MUGM', 'CharacterOffsetBegin': '0' 'NamedEntityTag': 'O', 'SubPOS': 'ARR', 'NUM': 'NUMS' 'CharacterOffsetEnd': '14', 'POS': 'IZE' 'funtzioSintaktikoak': ['@ADLG']]</pre>	<pre>{'Hierarchy': <b>"PROCEDURE-0"</b>, "Lemma": "ospitaleratze", <b>"sctId": "394656005"</b>, "CASE": "INE", "ORT": "HAS_MAI", "MUG": "MUGM", "CharacterOffsetBegin": "0", "NamedEntityTag": "O", "SubPOS": "ARR", "NUM": "NUMS", "CharacterOffsetEnd": "14", "POS": "IZE", "funzioSintaktikoak": ["@ADLG"]}</pre>
---	--

Hau egin ondoren, testuaFinal (kolorez dauden termino etiketatuek eta ez daudenak kateatzeko) eta dauka aldagai boolearra

Testu-kutxa 6. 44: 6.43 testu-kutxako jsonLortu (string) eta jsonTestua (JSON) aldagaia.

(ikusteko ea terminoa ea etiketatuta izan den) sortu ditugu aurrerago ikusiko dugun moduan. Behin hau eginda, jsonTestua aldagaian dauden terminoak identifikatzea izango da. Beraz, terminoa izateko sctId edo Hierarchy aldagaiak egon beharko dute (6. 43 testu-kutxan urdinez dauden etiketak). Kasu honetan, jsonTestua aldagaian sctId aldagaia (6. 44 testu-kutxaren

sctId-a) saiatuko gara lortzen. Hau da, lehenengo if horren barruan sartzen diren hitzak, ez dira terminoak izango (ez zaie kolorezko etiketarik ezarriko) sctId aldagaia ez dutelako (ikusi 6.45 testu-kutxa). testuaFinal aldagaian kateatuko dira, baino etiketa kolore bat ezarri gabe (6.7 irudia).




Irudia 6. 7: terminoak ez diren hitzen erakusketa interfazean.

```
for(i = 0; i < jsonTestua.length; i++){
    // hitzak ez badauka snomedId-rik ez badauka -> ez
    zaio kolorerik esleituko
    if (typeof jsonTestua[i][1].sctId == "undefined"){
        testuaFinal += jsonTestua[i][0]+ " ";
    }
    else{
        ...
    }
}
```

Testu-kutxa 6. 45: identifikatu zeintzuk ez diren terminoak.

else barruan hau egingo dugu: termino anitzak eta anbiguoak diren terminoak detektatu eta etiketa koloreak esleitu dizkiegu (6. 8 irudia).



Irudia 6. 8: termino anitzen detektatzea eta etiketa eisleipena

Termino anitzak detektatzeko termino bakoitzaren sctId-an oinarritu gara. Hau da, sctId-an “\_HAS”, “\_ERD” edo “\_BUK” bezalako atzizkiak aurkitzen baditugu, termino anitz baten parte dela esanahi du. Beraz, 6.47 testu-kutxako kodea idatzi dugu else-aren barruan.

```
Down-en: 41040004_HAS
Sindromea: 41040004_BUK
```

Testu-kutxa 6. 46: "Down-en sindromea" termino anbiguoaren identifikatzaileak.

Hau da, \_HAS atzizkia aurkitzen duenean indexOf() funtzioaren bitartez, termino anitz baten hasiera adieraziko du. Hau hasieratzerakoan j

deritzon kontagailua aktibatuko da eta hitzak kateatzen joango da termino anitza sortuz. Behin `_BUK` atzizkia aurkitutakoan termino anitzaren bukaera dela adieraziko du eta termino honen etiketatzeari jarraituko dio (kolore bat esleituz). Ikusi 6.50 testu-kutxa.


```

var j = 0;
//snomedId "HAS" badauka, terminoak konkatenatuko ditu (hitz
anitzeko terminoentzako)
if (jsonTestua[i][1].sctId.indexOf("HAS") > -1) {
    while((jsonTestua[i][1].sctId.indexOf("BUK")) <= -1) {
        if (jsonTestua[i+j][1].sctId.indexOf("BUK") > -1){
            break;
        }else{
            j++;
            jsonTestua[i][0] = jsonTestua[i][0].concat("
".concat(jsonTestua[i+j][0]));
        }
    }
}
...
if (jsonTestua[i][1].sctId.indexOf("HAS") > -1) {
    i = i + j;
}

```

Testu-kutxa 6. 47: termino anitzen eta bakunen kontrolaketa.

Eskema hobeto ulertzeko ikusi 6.9 irudia.



Irudia 6. 9:termino anitzak era egokian lortzeko funtzioaren sasikodea.

Ondoren terminoaren anbiguotasuna aztertuko dugu. Horretarako, berriro `sctId` atributuan oinarrituko gara. Hau da, aldagai honek “#”

karakterea badu hainbat SNOMED-ID kateatzen ari dela esan nahi du edo beste hitzetan, termino hori esanahi bat baino gehiago duela (ikusi 6.48 testu-kutxa)

```
function terminoAnbiguoak(terminoa, sctId){
  if(sctId.indexOf("#") > -1){
    terminoa = "<u>" + terminoa + "</u>";
  }
  return terminoa;
}
```


*Testu-kutxa 6. 48: terminoAnbiguoak deituriko funtzioa.*

Adibidez, Gaixotasunaren terminoa anbigua da, hiru SNOMED ID kateatzen dituelako sctId aldagaian (ikusi 6.49 testu-kutxa).

```
'sctId': '64572001#39104002#556001'
```

*Testu-kutxa 6. 49: "gaixotasunaren" SNOMED-ID-ak.*

Beraz, honela ikusiko genuke interfazean (ikusi 6.10 irudia):



*Irudia 6. 10: termino anbiguen detektatzea.*

Bukatzeko, terminoei etiketen kolorea esleitu behar zaie. Horretarako, Hierarchy atributuan begiratu beharko dugu zein hierarkia motak dauden. Hau egin ahal izateko indexOf() funtzioaren bitartez egin dugu. Funtzio honen bitartez parentesien artean idatzitakoa saiaturik da bilatzen. Hau badago, aurretik aipatu den dauka funtzio boolearra true izatera pasako da beste hierarkiak deuseztatuz (ikusi 6.50 testu-kutxa).

```

//koloreak ezarri terminoei (prioritate gehiena duen hierarkia
DISORDER >.....> gutxiena QUALIFIER
if (jsonTestua[i][1].Hierarchy.indexOf("DISORDER") > -1) {
    //kolore gorrixka = #ff8080
    testuaFinal += '<mark id =
    "'+'hitza'+'_'+emaitzaID+'_'+'i+'" style = "background-color:
    #ff8080">'+jsonTestua[i][0] + '</mark> ';
    dauka = true;
} else if ((jsonTestua[i][1].Hierarchy.indexOf("FINDING") > -1)
&& dauka == false) {
    //kolore berdexka = #99ff99
    testuaFinal += '<mark id =
    "'+'hitza'+'_'+emaitzaID+'_'+'i+'" style="background-color:
    #99ff99">'+jsonTestua[i][0] + '</mark> ';
    dauka = true;
}
//PROCEDURE, BODYSTRUCTURE, PHARMPRODUCT || SUBSTANCE eta
QUALIFIER berdina egin da
} else if (dauka == false) {
    // kolore urdin iluna-morea = #b3b3e6
    testuaFinal += '<mark onclick =
    "popUpAtera(\'hitza_' +emaitzaID+'_'+'i+\',\'+jsonTestua[i][1].
    sctId+\', \'+jsonTestua[i][1].Hierarchy+\')" id =
    "'+'hitza'+_''+emaitzaID+'_'+'i+'" style="background-color:
    #b3b3e6">'+jsonTestua[i][0] + '</mark> ';
}
dauka= false;

```

Testu-kutxa 6. 50: Terminoen etiketen kolore esleipena.

Hau guztia egin ondoren termino anitzak, bakunak eta anbiguoak direnak era egokian erakutsiko dira interfazeaz. Behin hau eginda, terminoen SNOMED Identifikatzailea eta FSN-ak (*Fully Specified Name*) *popUp* leiho batean agertuko dira termino horren gainean klik egin ondoren. Hau lortu ondoren, produkturen helburua beteko litzateke.

### PopUp leihoa agertu:

Esan den bezala, termino batean klik egin ondoren *PopUp* leiho bat agertuko da. Leiho honek hiru zatitan banatuko da, HTML, CSS eta Javascript zatietan hain zuzen ere. Leiho hau interfazearen ezker aldeko beheko aldean agertuko da beti. Leiho honek honela egongo da egituratuta (ikusi 6.12 irudia).

Hona hemen HTML kode zatia:


```
<div id="myModal" class="modal">

  <!-- -->
  <div class="modal-content">
    <div class="modal-header">
      <span class="close">&times</span>
      <!-- terminoaren izena hemen agertuko da -->
      <h2 id="terminoIzena"> </h2>
    </div>
    <div class="modal-body">
      <!-- radioBttnak hemen agertuko dira -->
      <blockquote id="radioButtonMultzo">
      </blockquote>
    </div>
